

SANTIAGOAREN IKONOGRAFIA GIPUZKOAN

Ana Isabel Ugalde Gorostiza

Cuadernos de Sección. Artes Plásticas y Documentales 12. (1994), p. 25-67.
ISSN 0212-3215
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Lan honek, izenburuak diotenaren arabera, Santiago apostoluak gipuzkoako probintzian arte ederretan izan duen eragina aztertzea izan du helburu.

Desagertutako irudiak asko izan arren, berari eskainitako 3 erretaula eta 34 irudi soial ezagutzera eman nahi ditu. Kronologiari dagokionez, oso esparru zabala hartzen dute, Ertaro bukaeratik XX. mendera artekoa hain zuzen.

Eurak sortu ahal izateko, sasoian sasoiko izpiritu eta giro erlijiosoari hurbildu nahi izan du, eta denboran zehar berariko kulturak jasotako gora-beheren berri emanez, ikonografian egon diren aldaketak azaldu.

Este trabajo, tal como indica su título, tiene por objeto el estudio de la influencia del apóstol Santiago en el arte de la provincia.

A pesar de las muchas las imágenes desaparecidas, quisiera dar a conocer los 3 retablos y las 34 imágenes a él dedicadas. En lo referente a la cronología, hemos de destacar el largo período de tiempo que abarcan, desde finales de la Edad Media hasta el siglo XX.

En el trabajo se pretende un acercamiento al espíritu y ambiente religioso de la época en que fueron producidos y también se exponen los cambios que ha sufrido dicha iconografía, señalando las vicisitudes que su culto ha sufrido en el transcurso del tiempo.

This work, as its title suggest, aims at studying the influence of Saint James the Apostle on art in the province.

In spite of the fact that many of these images have disappeared, I would like to mention the 3 altarpieces and 34 images dedicated to him. With reference to their chronology, we have to underline the long period of time which they cover, from the end of the Middle Ages until the 20th century.

In this work we endeavour to approach the religious spirit and atmosphere of the sea era during which they were produced and also mention the changes suffered by this said iconography, thereby signalling the vicissitudes which its cult has suffered over the course of time.

Compostelako Urte Santua (1) ospatu den 1993an, beste azkenengo Urte Santu guztietan bezala, asko hitzegin da Santiago Bideak izan zuen inportantzia Euskal Herrian. Guztiz frogatua eta onartua Iparralde, Ekialde eta Hegoaldean, baina korapilatsuagoa Gipuzkoa eta Bizkaiari dagokienez. Gu, gure aldetik, Gipuzkoan Santiago Apostoluari eskainitako kultoak arte ederretan izan zuen eragina aztertzen saiatuko gara.

Gogora dezagun zelan eta noiz sortu zen Santiagoren fenomeno paregabea. 813. urte inguruan Santiagoren hilobia Pelagio izeneko monje batek aurkitu ornen zuen, gero Compostela izenaz ezaguna izango zen eremu batean, eta Iria Flavia-ko Teodomiro apezpikuari gaztigua eman zion. Asturiasko errege Alfontso IIak jakin zuenean, «locus sanctus» bera (leku santura) joan, erlikiak gurtu eta eliza bat eraikitzea agindu zuen 834. urte inguruan Teodomiroren ardurapean, urteekin egun ezagutzen dugun katedralea bilakatu-ko zena. Martiriaren «potentia» (indarra) eta «praesentia» (presentzia) Europako Mende- baldeko muturrean bere osotasunean ulertu ahal izateko kristauen artean, tradizio bat prestatuz joan zen poliki poliki, istorio, mirari eta abarrez hornitua. Gorpua- ren agertzea («inventio») berehala izan zen dotoretua azalpen gehigarri batzurekin: Santiagoren predi- kazioa Hispanian, oraindik Apostolu zela; Jerusalemen hil ostean K.o. 44. urtean, gorpua- ren ekartzea Galiziara («traslatio»); bertan eskeini ornen zioten kultura eta ondorengo ahaz- tualdia, berriro ere Hispanian agertu arte. Horren arabera, Alfontso IIak eta Teodomirok berriztatu besterik ez zuten egin V mendera arte bizirik ei zegoen kultura, eta berriztatu ere antzinako erara, martiriaren hilobira peleginaldia eginez (2).

Gertakariak oihartzun haundia izan zuen Europa guztian eta jakin orduko hasi ziren pelegri- noak (3) Compostelarako bidea egiten. Hasieran anonimoak izan ziren, eta seguru- tik gehienak Asturiasko Erresumakoak (Galizia Asturiaskoa baitzen), Oviedo-Compostela izango zelarik sasoi hartako Bide-Bidea. Baina X mendean dokumentatuta dago Pirinioez

(1) 1122. urtean Calixto IIa Aita Santuak erabaki zuen. Erromako Urte Saintdua eredutzat harturik, igandean suertatzen zen Santiagoren eguneko urtea, Urte Saintdua izango zela. 1187.ean, berriz, Alejandro IIIaren «Regis Aeterna» Bulan zehaztu ziren Santiagoren Hilobia urte horietan bisitatuko zutenek lortu- ko zituzten graziak, beti Zerua irabazteko xedez.

(2) Askok eta asko dira gaia tratatu dutenak; aukeratzekotan: Erdi Aroan, sailduen kondairak bildu zituen VORAGINE, S.: *La Leyenda Dorada*, Madril, 1982, 396-405 ok. ENRIQUEZ DE SALAMANCA, C.: *El Camino de Santiago*, Madril, 1991; dibulgaziorikoa izan arren, itxurakoa da. SORIA Y PUIG, A.: *El Camino a Santiago*, I. Vías, viajes y viajeros de antaño, Madril, 1991, liburu ederra eta atsegina da oso, eta egokienetarikoa Bideari buruzko informazioa jasotzeko. Edo talde lana den *El Camino de Santiago*, Bartzelona, 1991. LOPEZ ALSINA, F.: «La formación del Camino de Santiago», in *El Camino de Santiago*, Bartzelona, 1991, 27-36 ok., oso artikulua egokia da Bidea egitea zer zen jakiteko.

(3) Pelegrin diot eta ez erromes, bi kontzeptu desberdin direlako. Jerusalemara zihoazenak gurutzat- uak ziren, Erromara zihoazenak San Pedro eta San Pablaren martiri lekuak ikustera, erromesak; eta Com- postelara zihoazenak, pelegri- noak. Gainera, badira Euskal Herrian berba honen erabilera baieztatzen duten frogak, bai kantu zaharrak (Ikus AKESOLO, L.: «Santiago Bideko euskal kantak». *Euskerazaintza*, XXII zenb., 1993ko Urtarrila-Epailla, 26-30 ok.), baita Mondragoe aldean ere (Frantziako influentziatik at) errukia erakusteko esaten diren «gizajo-pelengriño» eta «pelengriño» hitzek.

bestaldekoek ekin zioetela bideari, ez dakigularik nondik zeharkatu zuten Penintsulako iparraldea (4). Dena den, XI mendean, Nafarroako Antso I.a Nagusiak (1004-1035 bitarteko erregealdiaz) taiutzen hasia zegoen bidea hegoalderantz jaitsi zuen, Errioxa eta Burebarantz bultzatuz. Geroago, Iratxeko (1051-1054) eta Naxerako (1052) ospitaleak eraiki ziren, Garesko zubia egin zen. Politika bera segitu zuten Aragoako Santxo Ramírezek eta Leon-Gaztelako Alfontso Vlaken, Bideko hiriak sendotu, zubiak eta galtzadak zaindu, eta pelegriñoak babesteko ekimen haundiak egin zituztelarik (5).

Esan genezakeena da XII menderako Europa osoan guztiz ezagunak zirela Compostela eta pelegrinaldiak, eta bertara zihoazenez Euskal Herriitik pasatuz, Santiago Bidea, Done Jakue Bidea edo Frantzes Bideaz ezagunago den bidea zerabiltela, hots, bide «ofiziala»; Erdi Aroan eta beranduago ere «best seller»a izan zen Aymeric Picaud-en «Codex Calixtinus» gida-liburuan argi eta garbi agertzen den moduan (6).

Gipuzkoa eta Compostelarako pelegrinaldiak

Baina zer gertatu zen Bide ofizialetik kanpora geratutako Gipuzkoa moduko lurralde batean? Pasatu ote ziren pelegriñoak? Asko ala gutti izan ote ziren? Nondik nora zeharkatu zuten probintzia? Noiz hasiko ote ziren lehen pelegriñoak pasatzen? Joango ote ziren bertakoak Compostelara?

Gaiari buruzko bibliografia irakurritz gero, salbuespen batzuk ezik, edo Eusko Jaurlaritzak hartu berri duen erabakiaren aurrean (7), behin eta berriz hiru ideia nagusi errepikatzen direla esan genezake: Gipuzkoan bezagoela Santiago Bidea; Santiago Bideak kostaldekoa eta San Adriangoa zirela, eta kostaldekoa Nafarroakoa baino zaharragoa dela.

Iturriek, berriz, besterik esaten digute, eta bideen historiak ere (8) egindako eta egiten diren baieztapen asko eta asko loka jartzen ditu; pelegrinaldiek mende askotan iraun baitzuten (gora-behera haundiekin), eta Gipuzkoaren bilakaera, bide eta hirien antolamendua, egoera politiko, sozial eta ekonomikoa oso desberdinak izan zirelako Ertarotik honako mende luzeetan zehar.

Gipuzkoa geografikoki ondo kokatuta egon arren Penintsulako iparraldeko Santiago Bidea hartzeko, zein kostaldekoa (Oviedoko San Salvador ikusiaz zihoana) zein barnekaldekoa, ez zen, ordea, kanpotarren pasaleku izan oso berandura arte. Eta ez dirudi Compostelaranzko ibiltariak (edo bueltan zetozenak) asko izan zirenik. Elena Barrena ikerlariak, bideen historia egiteko, esku artean ibili duen Ertaroko dokumentazioaren arabera, hirutan besterik ez dira aipatzen:

— 1397an Gipuzkoako Hermandadeak hartutako erabaki batean, zeinean dioen eskekotasuna debekatzeari buruz: «si fuese romero o otro estrangero que pediere por amor de Dios que pueda pedir non dormiendo en cada lugar mas de una noche».

(4) SORIA Y PUIG, A.: op. cit. 115-117 ok.

(5) SORIA Y PUIG, A.: op. cit. 119-120 ok. GARCIA DE CORTAZAR, J.A.: Euskal Herria erdi aroan II, Donostia, 1991, 30-31, 40-41 ok.

(6) Bere itzulpena BRAVO LOZANO, M.: Guía del peregrino medieval. Sahagún, 1991.

(7) Salbuespenak: BARRENA OSORO: Historia de las Vías de Comunicación de Gipuzkoa, I. Antigüedad y Medioevo, Donostia, 1991. Oinarritzko liburua, Gipuzkoako komunikabideei buruz egin den lanik osatuena, ondo dokumentatuta eta mapa argiez hornitua; VAZQUEZ DE PARGA, L., LACARRA, J., URIA, J.: Las peregrinaciones a Santiago de Compostela, Madril, 1949, 9-18 ok. Aldekoen eskola egin duena, bestalde, eta jarraitzaile ugariarekin, LEKUONA, M.: «Hablando de rutas y vías en Guipúzcoa», 1964, «Santiago-bideak Gipuzkoa'an zear», Eusko Etnografia, 2, Gasteiz, 1978, 317-325, 301-308 ok., EHAA 1993ko uztailak, 9, ostirala, 129 zk. 6551-6579 ok.

(8) BARRENA OSORO, E.: op. cit.

— 1484an Orioko txalupa erabiltzearen pagatu behar zen tasari buruz dioenean, salbuespena egiteko «a pelegrinos y personas pobres que le non llevádeses cosa alguna».

— 1475-1499 bitartean Gatzagako bidasariari buruzko auzian diotenean, oinezkoak zirela «vecinos», «mercaderes», «peregrinos» eta «pobres» (9).

Santiago bide moduan aurkeztutakoak ez ziren, segurutik, komunikabide arruntak baino izan, pelegriñoek takian-takian erabiliak; baina ez eurentzat apropos eginak; edo, egin ezean, eurentzako moduko zerbitzuez hornituak; bertako pertsonen eta herrien arteko komunikazioa areagotzeko baizik, garaiko bertako biztanleen premiei erantzuteko, alegia. Pelegriñoek probintzia honetan zeuden bideak erabili bazituzten, ezin dezakegu Santiago Bideaz hitzegin, Santiago (?) bideez baino; eta bideak hain ugariak izanik, arestian aipatu-tako biak baino gehiago izan ziren.

Hala ere, sarritan irakurri izan dugu Frantzes Bidea taiutu aurretik, XI mendera arte, Gipuzkoa eta Bizkaiko kostaldetik abiatzen zirela Compostelarentz, eta, beraz, biderik zaharrenak Gipuzkoatik zihoazela, Gipuzkoaren izenik behin ere agertu ez arren. Baiezta-pen hau egiten lehena Esteban de Garibay XVI mendeko historiagile euskalduna izan zen (10). Historiagile honek bere «Los cuarenta libros del Compendio historial de las Crónicas y universal historia de todos los reinos de España» idazteko dokumentu asko eta aurretikoan lanak erabili ei zituen, zeintzutan sarritan agertzen baita Arabatik pasatzen zirela Frantzes Bidekoak. Goi Ertaroko kroniketan esaten da «per devia Alavae Peregrini declinabant»... «timore maurum» (Arabako bide galduetatik zihoazen pelegriñoak... mairuen beldur). Gaztelako errege Alfonso Xak (1221-1284) bere «Crónica General»ean Santiago Bideaz zioen Naxera, Burgos, Carrión eta Leondik gauzatu aurretik «ante d'aquello por Alava et por Asturias yva el camino francés» (11).

«Mairuen beldur» izatearen ohizko interpretazioa bideak kostaldera eramatea izan da Baina egungo ikerketek diotenen arabera, ezinezkoa da berau mantentzea: itsas merkataritzaren aipamenak oso bakanak dira, bideak mantentzeko moduko populaguneak ere ez dirudi zeudenik (X mende bukaeran Irungo Santa Elena bakarrik agertzen da dokumentatua, eta XI mende bukaeran Donostia eta Astigarribia), erabilitako adbokazioen argumentua ere ez da nahikoa, zeren probintzia guztian barrena bideetako saildu zaindarien eliza eta ermitak kostaldean bezain ugariak diren. Honi gaineratuz gero normandoen erasoak ez zirela guztiz ezezagunak Kantauriko kostaldeetan, begien aurrean plantatzen zai-gun egoera ez da batzuk gura izango luketen bezain ederra ibiltarientzat.

Litekeena da mende ilun haietan Arabako bide galduen artean Arakil-Araiatik zetorren bidearen adar bat Arlabandik Gipuzkoan sartzea, Deba Garaia pasatuz (arteana Araba baitzen), Elorrio aldean sartu, Enkarterrietara abiatu (garaian Bizkaia Gipuzkoa baino aurreratuagoa zegoen), eta Oviedotik zehar Compostela heltzeko (12).

Bada beste arlo bat pelegriñaldi guztietan gogoan izan behar dena, pelegriñoen «costatuarena» hain zuzen. Gipuzkoak ez zuen, Arabak zeuzkan moduan (13), XI mendea

(9) BARRENA OSORO, E.: op. cit. 25.a eta 206. ok.

(10) GARIBAY, E.: Compendio historial, I, 535-536 ok., in CARO BAROJA, J.: Los vascos y la Historia a través de Garibay, Donostia, 1972, 206. or.

(11) PORTILLA, M.: Por Alava a Compostela, Gasteiz, 1991, 5-6 ok.

(12) BARRENA, E.: op. cit. 82-90 ok. BARRENA, E.: La formación histórica de Guipúzcoa, Cuadernos universitarios, 5. zenb., 1989, 336-337 orrialdeetan dio, 1179an Nafarroako Antso VIak eta Gaztelako Alfonso VIIIak sinatu zuten akordioan Deba Garaia eta Erdia Arabako lurriketako partaide zirela.

(13) PORTILLA M.: op. cit. 7-11 ok.

baino lehen (gero ere urri) baldintza objetiko haundirik pelegrinoek zeharkatu ahal izan zezaten. Egia da Irunek bere alde erosotasuna zeukala (lautadan zegoen eta), baina egia da, baita, ibiltariek zertxobait gehiago behar zutela bidea egiteko; hala nola, monastegiak, populaguneak eta ospitaleak; gaua pasatu, lo egin, gaixoak osatu, jan eta babestuta sentitzeko, eta orain arteko azterketek diotenez ia ez zeudenak.

XII mendean, oster, Gipuzkoa antolatuago agertuko zaigu. Elizaren ordenamendua 3 diozesitan mantentzen zen: Baiona, Calahorra eta Iruñea. Europa guztian moduan, hazkunde demografikoa txikia baina etengabea izan zen, nekazaritzarako lur egokiagoak bilatuz kostaldean eta bailaretan auzuneak eratu ziren, eta 1180. urte inguruan Donostiako hiria sortu zuen Nafarroako erresumak. Probintziaren hegoalderaino Arabako Gebaratarekin bere jaurgoa hedatu zuten, antolamendu berri bat ezarri (14). Azkenean, Nafarroa eta Gaztelaren arteko urte askotako liskar eta tirabiren ostean, 1200. urtean Gipuzkoa Arabarekin batera Gaztelako erresumaren partaide bihurtu zenean, aro berri bat zabaldu zen.

XI mendean, ardien uda-neguko joan-etorriei jarraiki, Bizkaia eta Nafarroaren artean sendotutako bideei, XII mendeko aurreratzeak beste batzuk erantsi zizkien, kuadrakala itxurako sare bat sortuz, betik indarra hegoaldeak zuelarik. Azken mende honen akaberan badiugu beste bi elementu guztiz adierazgarri gerta dakizkigukeenak eta elkarren arteko harreman estu-estua dutenak: bata, bideak zaindu eta mugak indartzeko Nafarroako erresumak eraikitako gazteluak eta bestea, garai kideak edo berandutxoagokoak diren Arte Erromanikoaren aztarnen «kontzentrazioak». Hauen arabera bi komunikabide ardatz nagusi ditugu Gipuzkoan: Nafarroarekin lotzen zuena, Enirio eta Aralartik, eta Arabarekin lotzen zuena, Arlabandik (15). Batak Aralarko San Migelekin eta zonalde horretako arte erromanikoarekin du zerikusia, eta besteak, berriz, Estibalizkoarekin.

Arte erromanikoaren presentziak (berandutxo bada ere) lehengo aldiz egiten gaitu Ertaroan Europan hedatu zen korrante estetiko baten jabe. Barrukaldean egoteak; barne bilakaerak sortutako bideen inguruetan; aztarnen urritasunak; eta horretan Euskal Herriko aberatsen etarikoak diren probintzien mugetan egoteak frogatuko lukete pelegrialdietako artea deitu den korrante hau, haundiago baten oihartzun bat besterik ez zela izan, oraindik pelegrinoek ez zutela probintzia hau zeharkatzen baieztatuz.

XIII eta XIV mendeetan Gipuzkoak bere geroa aldatu zuen hitar antolamendu berria ezagutu zuen. Beste probintzietan ez bezala, gaurdaino iraun duten 25 hiribilduetatik, XIII mendekoak erregeen ekimenari esker sortuak izan ziren, eta XIVekoak, oster, populaguneetako biztanleek eskatuta (16).

Gogoan behar dugu izan itsasaldeko fundazioak ulertzeko, 1200. urteko gertakarian galtzailea Nafarroako erresuma izan zela eta irabazlea, berriz, Gaztelakoa. Hasierako fundazioetan (1203-1237 bitartean, Hondarribia, Getaria, Mutriku eta Zarautz sortu ziren) helburu nagusia Nafarroari itsasorako iteera kentzea izan zen. Belatetik Donostiara eta Hondarribiara zetorrena itxi ostean, nafarrak (XI eta XII mendeetan sendotutako bideak erabiliz) hel zitezkeen beste portuak kontrolatzeari ekin zioten. Kantauri aldeko iteera galdutzat ikusi zutenean soluzioa Nafarroako eta Gaztelako errege eta erresumen arteko hitzamenen bitartez heldu zitzaizen historiografiak ongi adierazi duen moduan.

(14) BARRENA OSORO, E.: op. cit. 95-97 ok.

(15) BARRENA OSORO, E.: op. cit. 104-105 orrialdeetako mapa, 95-110 ok.

(16) BARRENA OSORO, E.: op. cit. 119-120 ok.: ARIZAGA, B.: Urbanismo medieval (Guipúzcoa), Donostia, 1990, 19-21 ok.

Marko honetan kokatu beharko genuke, Gipuzkoatik Santiagorako lehen pelegriñoak eurekin pentsatutako bide batetik pasatzen hasten direneko garaia. 1165etik aurrera frogatuta dago Belaten pelegriño ospitale bat zegoena Iruñeko Apezpikuaren menpe eta San Agustinen kanonigoek zerbitzatua, Santa Mariarena alegia (17), eta 1200 ingurukoa ornen da Hendaian Gaztelako Alfonso VIIIak edo Fernando IIIak eraiki zuen Zubernoako Priorenia ospitalea, Santiagoren Ezpata Gorriaren ardurapean jarria (18). Hau izango litzateke, gure ustez, Gipuzkoan Santiago Bide bateaz, laburra bada ere, hitzegiten has gaitezkeen lehen aldia. Baiona eta Hendaiatik zetozenak, Irundik Berara pasatu, Baztandik Belate aldera abiatuko ziren eta Iruñetiko Santiago Bideagaz Arreko Trinitatean bat egingo zuten. Bide honetaz ari zen 1435.ean oraindiko Nafarroako Doña Blanca erregina, «Cámara de Comptos» delakoari agindu zionean Iruñeko merkatarien artean galdetzeko Lesaka eta Beratik Hondarrabiara joatearen egokitasunaz (19).

Fundazioen 2.fasean, Gaztelako Alfonso Xak bere erregealdian (1252-1284) hiribildu agiriez aurreko tendentzia sendotu zuen: 1256an Segura eta Tolosaz Nafarroarako komunikabideak bermatu zituen eta 1260an Mondragoekoaz Araba eta Bizkaikoak. 1268an, berriz, Ordizia eta Bergarak beren fundazioen bitartez lehengo paper berberaz segitu zuten, Ekialde-Mendebalde norabidean Nafarroatik Bizkairako pasatu beharreko hiriak izaten hain zuzen ere. Itziarko sorreraz Sancho IVak 1294an kostalde guztia hiritan antolatzen bukatu zuen, baina oraindik lotu barik barruko eta kostaldeko hiriak ez baitzen egon tarteko fundazio bat ere ez.

Nahiz eta beherakada nabarmena izan ekonomiak eta demografiak Europa guztian bezala, XIV mendean helduko zitzaizen ordua erreken haranetako hiribilduei. Modu horretan, biztanleek eskatuta sortu ziren itsaso eta probintziaren hegoalde artekoak, Urolaldea bihurtu zelarik bidegurutze garrantzitsua (1351ko Korteetan Mondragoe Getariako lehorreko portu izendatu zuten eta Segura, berriz, Mutrikukoa). Mende honen erdialdean Mondragoek aspalditik bidegurutze gisa izandako protagonismoa (Mondragoe-Kanpazar-Elorrio, Mondragoe-Oñati-Segura-Lazkao-Zaldibia-Aralar) Bergarari eman zion inguruko fundazioei esker (Elgeta, Plazentzia, Elgoibar, Urretxu, Azpeitia, Azkoitia) Eta sasoi berean, 40. hamarkadan, bailara osoa komunikabideetarako lotuko zituen gertakari bat izan zen, Monreal de Devaren sorrera alegia, Itziarkoek erreka ondora jaistea eskatu ziotenean Gaztelako erregeri. Honela ba, lehenengo aldiz taiutu zen Gipuzkoan erreka bati jarraiki Gaztela eta Arabatik itsasora heltzeko bide bat, eroso eta antzinakoak baino motzagoa; Gipuzkoan agintzen zuen Gaztelarentzat Arlabangoa izan zela beti iparralderanzko bide naturala frogatuz. Argi azaldu zuen berau 1457an Hermandadeak ere zioenean «...la villa de Salinas de Lenis e tierra e valle de Lenis son puerta e entrada de la dicha nuestra provincia de Guipuzcoa...» «...es la mejor e principal entrada de las dos entradas que ha la dicha provincia...» (20).

Bi sarrera hauetariko bestea San Adriangoa izango zen, segurutik; XV mendearen erdialdera arte goi mailako komunikabide moduan ia erabili bakoia, eta harrez gero dokumentazioan erruz agertzen dena. Gipuzkoako Hermandadean egundoko ahaleginak egin ziren berau indartzeko eta indartze honetan Oria inguruko herriek, bertan zuten pisuaz baliatuz, Gaztelarentzat irteera propio bat bilatzen saiatu ziren, baita lortu ere. Garai hartan Gatzaga (bere gogoaren kontra) Arabako Hermandadekoa zen, Oñatiko Kontearen men-

(17) SORIA Y PUIG, A.: op. cit. 104-106 ok.

(18) DUHOURCAU, B.: Les chemins de Saint-Jacques en Pays Basque, Baiona, 139 or.

(19) AZPIAZU ELORZA, J.A.: Sociedad y vida social vasca en el siglo XVI. Mercaderes guipuzcoanos, Donostia, 1990, 147.

(20) BARRENA OSORO, E.: op. cit. 123-140 ok.

pe zegoelako eta honek behar ez zituen tasak kobratzen ei zituen bertatik pasatzeagatik. Egoera honek Segurakoen alde jokatu zuen eta San Adriango Kobako pasalekua, Arlabangoarekin batera, Gaztelarako goi mailako bide bihurtu zen.

Deba eta Oria erreken inguruan eratutako bideak izan baziren garrantzitsuenak, Gipuzkoako beste bailarek ere antzeko fenomenoak ezagutu zuten, besteak beste Urumeak, Bidasoak, Leizaranek (Nafarroa alderuntzko komunikabideak sendotzeko) edo Urolak, Biozkorna eta Urbiatik Arabarako bideak indartu gura izan zituztenean (21). Arestian aitatu dugun Arlaban eta San Adrianen nagusitasuna bideekin zerikusia duten XVI mendeko erabaketan nabaritzen da. XVIII mendean Arlabanek, bere postabidea zela medio, lehengo zuen protagonismoa berreskuratu zuen, San Adrianen kalterako (22).

Eta San Adriangoa izan bada aztertuen, famatuena eta pelegrinazio bide moduan ere gehien ikertu dena (23), ez litzaioke Gipuzkoako historiografiari gaizki etorriko Nafarroa eta Arabako lautadetara heltzeko antzinako bideetako herrietan artxibo, toponimia edo adbokazioen azterketak egingo balira, sorpresa haundiak edukiko baikenituzke. Adibide gisa, aipa genitzake Ataungo Santiago ospitalea (gaur egun Hospitalene baserria), edo Arratekoa, edo Deba Bailarako kasua.

Deba Bailara, orain arteko azterketa historikoei argi utzi duten moduan, komunikabide inportante batizan zen Ertaro guztian zehar eta Aro Modernoan ere bai. Bideko santuen adbokazioak (Santa Marina, Madalena, Santiago, San Roke, San Kristobal, San Martin Tourseko) oso ugariak dira; Donostiakoa baino XVI mendeko urte askotan merkatal aktibitate haundiagoko portua zuen akaberan; hirietan ospitale dokumentatuak zeuden; eta bazuen, bestalde, Gatzagako lurretan, eta herritik aparte, hospederiadun Dorletako Ama Birjinaren santutegia. Santutegi honetan asko ei ziren erlikiak (besteen artean Kristoren Koroaren arantza bat), hain liluragarri Ertaroan eta geroago ere, kristauentzat nahikoa izaten zirenak debozio bereziak sortarazteko edo pelegrinoak desbideratzeko (24).

Pelegrinoen pasatzea frogatuko luketen dokumentu batzuk kontserbatzen dira Dorletan, zeinetan agertzen diren Compostelatik bueltan zetozenen hildako batzuren izenak. Esate baterako, pelegrinaldiak ahulduta zeuden XVII mendeko partida batzuk diote:

«En 15 de setiembre de este año (1680) murió derepente en el hospital un muchacho francés que venía de Santiago para su tierra»,

«En 26 de junio de 1690 murió Domingo de Gorostiza, natural de Ormaiztegui, viniendo de Sr. Santiago cumplido su voto de peregrinación».

Santutegian erlikiak gurtu, kristau lanak egin, eta atsedean hartu ostean, Arabarantz abiatzen ziren Anguta arratetik (gaur egun ia galduta dagoen bidea). Kaminoak Santiagoren eta Santa Marinaren ermitak zituen mendi bizkerraren alde banatan, eta Gebaratik pasatuz, Estibalizera zeroan, Arabako Lautadako beste bide batzurekin batu arte. Santiagoren ermita 1417. urtean dago dokumentatua eta Santa Marinarenak ere mende horretan eraikia izan zela dirudi atea apaintzeko daukan arku konopialarengatik (25).

(21) BARRENA OSORO, E.: op. cit. 140-174 ok.

(22) PORTILLA, M.: op. cit. 33. or.

(23) LEKUONA, M.: op. cit. 301-315 ok. eta «San Adrián y los caminos de Santiago a través de Zaldueño», Eusko Etnografia, 2, 271-285 ok. ORELLA, J.L.: KORTADI, E. ETA DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO DONOSTIAKO TALDEA: «El camino de Santiago en Guipúzcoa. De Zuberoa a Zaldueño». Eusko Ikaskuntza. Artes Plásticas y Monumentales, 3, 1985. 189-294 ok. Onespén ofiziala ere eman diote bideari EHAA. 1993ko uztailearen 9koan

(24) MALE, E.: El gótico, Madril, 1986. 319-321 ok.

(25) BERGARECHE, D.: Apuntes históricos de Salinas de Léniz y del Santuario de la Virgen de Dorleta. Donostia, 1952. 139-146 ok. Santa Marina ermitarentzat, PORTILLA, M.: Catálogo Monumental. Diócesis de Vitoria. Llanada oriental y valles de Arana, Araya y Laminoria, Gasteiz, 1982, 570. or.

Eta Compostelarako pelegrinaldia egiten zuten giputzak nondik joaten ziren? Zeren Gipuzkoa ez zen izan kanpotarren pasaleku soila. Oraindik XIX mendean, Pascual Madozen «Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España»n (1845-1850) Errioxako Nafarrore herriari buruz esaten da «por esta población transitan los peregrinos vascongados que van a Santiago de Galicia» (26).

Arestian aipatutako Domingo de Gorostizak moduan, beste askok ekingo zioten bideari eta oker haundi barik esan genezake, tokian tokiko ohizko bideak erabiliko zituztela Araba eta Nafarroako lautadetara ailegatu arte, han Bide «ofiziala» edo Frantzes Bidea hartzeko.

Gatzagan bertan Juan Abad de Elexalde 1417ko Abenduaren 4an egindako testamentuan pelegrinoen beste alde bat agertzen zaigu, enkarguz egindako bidearen fenomenoarena, hain zuzen ere, esaten duenean:

«Otrosy mando que ynbien por mi anima un orne en rromeria a la casa e iglesia del apostol señor Santiago de galisia et otro orne por la anima de pero abad mi hermano que Dios perdone» (27).

Laburbilduz zera esan genezake:

- Gipuzkoako Santiago bideak, pelegrinoentzako bideak izan barik eta pelegrinoek erabili arren, merkataritzarako eta komunikatzeko izan zirela.

- XI mendea baino lehenagoko bide zaharrena Arlaban-Deba Garaia-Elorrio-Enkarterriak egiten zituena zela.

- Ezin daitekeela frogatu Compostelarako kostaldeko biderik zegoenik, Nafarroakoa baino zaharragorik.

- Gipuzkoatik pasatzen zen pelegrinoekin pentsatutako bidea, XIII mendetik aurrera, Irundik Beraraino zihoana zela.

- Sarbide edo irtenbide nagusia iparraldetik Irungoa izan zela eta, nahiz eta ikertu gabe egon, balitekeela itsasoz etortzen edo joaten zirenen kopurua ere, merkataritza bidaiak aprobeztatzu, estimagarria izatea.

- Gipuzkoatik Arabara eta, ondorioz, Gaztelara heltzeko erarik eroso eta laburrena Arlaban zeharkatzea izan dela beti. Nafarroara, oster, Aralar, Berastegi, Hernani, Oiarzun eta Hondarribiakoak izan direla. Pelegrinoentzat ere hala izango ziren.

- Gaur egun Deba Garaiaz ezagutzen dugun eskualdeak, ikertuz gero, sorpresaren bat emango ligukeela, bere baitan batzen baititu probintziako arte erromanikoaren kontzentrazioarik haundiena, Santiagori eta bide zaindarien eskainitako ermita eta eliza asko; behar bada, pelegrinaldien ezagutzearen seinale.

- Erreka baten inguruan antolatutako lehenengo bidea Deba haranekoa izan zela, XIV mendearen erdialdean.

- San Adrian kobako pasalekuak XV mendearen erdialdera arte ez zuela irispide haundiko bide izaera hartu.

- Gipuzkoa zeharkatzeko ardatz nagusiak XV mendetik aurrera Oria eta Deba ibaien arroetan antolatutakoak zirela.

(26) SORIA Y PUIG, A.: op. cit. 27. or.

(27) BERGARECHE, D.: op. cit. 139-140 ok

- XVIII mendetik aurrera San Adrianek inportantzia galdu zuela komunikabide gisa.
- Trabesetarako bideak ere asko zirela (kostaldekoa, kasu), baina zerikusi handiagoa zutela herrien arteko komunikabide izatearekin, peleginaldiekin baino.
- Jatorrian komunikatzeko eta garraiorako zabaldutako bideek (joan eta etorrirako), bidaiariak eta pelegriñoak ere ezagutu zituztela, noski, Compostelara edo Compostelatik itzulian. Herri horietako artxibategi, ermita, eliza, ospitale, ordenantza eta bideen ikerketa sakon batek, esparru berri bat zabalduko ligukeela aztergai.
- Dokumentazioaren arabera, eta ondoren ikusiko ditugun artelanen arabera, Gipuzkoaren benetako protagonismoa XV mendeko bukaeratik aurrerakoa da. Europa guztian XI eta XII mendeetako peleginaldien loratzeari, XIV eta XV mendearen erdialdera arte areagotu zen barealdi luze batek jarraitu zion, izurriteek eta gerrek eraginda. Egoera hartan oso zaila zen bideari ekitea eta pelegriñoei ostatu eta babeska eskeintzea. Hobetzera-koan, osterak hasi ziren joaten eta Gipuzkoa gustoko pasaleku bilakatu zen, ordurako bazituelako bidaiarientzako moduko baldintza egokiak.

Santiagoren ikonografia

Europa guztian eta Ameriketara hain famatua izan zen Apostolua irudikatzen tipo ikonografikoak aztertzerakoan sarri-sarri jo beharko dugu bere izaera dotoretzeko eta mi-
resgarri egiteko sortutako istorio guztietara (28).

Ebangelioek Santiago eta bere anaia San Juan, Zebedeoren semeak, Kristoren seme kuttunenak eta «Trumoiaren semeak» zirela diote. Apostoluen Ekintzetan, berriz, Kristoren Igokundearen ostean Jainkoaren hitza zabaltzen jardun zuela eta Herodes Agripak, horre-
gatik, lepoa ebakitzea agindu zuela.

Mendebaldean gertakari hauei buruzko istoriorik zaharrena, «Passio Magna», Apos-
toluen Brebiarioko Laugarren Liburuan agertu zen VII mendean, zeinak jaso zuen Palesti-
nan sortutako kondaira apokrifoa, «Pseudo Abdias»ena hain zuzen.

«Sampiroren Kronika»n (IX-XI) eta «Historia Compostelana» (XII mende hasiera) de-
lakoetan agertu zen lehengo aldiz gorpua «inventio» liluragarriaren gertakaria.

XII mendean «Codez Calixtinus» izan zen ordura arteko istorio guztiei Apostoluak
egindako mirakuluak gehitu zizkiona eta hedatu zituena Mendebaldeko kristauen artean.

Eta azkenik XIII mendean Giacommo de la Voraginek, ia gaurdaino iraun duen kon-
daira egin zuen, aurrekoari mirakulu gehiago erantsiz.

Iturri hauetan oinarriturik Santiago era hauetara irudikatu izan da:

Irudi zaharrenetan Apostolu moduan jantzita agertzen da, tunika eta mantuaz, gehie-
netan ortozik, eta eskuetan liburu daramala, Jainkoaren hitza zabaltzeko zuelako. Gizon
helduaren itxurra izaten du, ule kizkurra eta bizar motza. Inoiz jezarrita azaltzen den arren,
usuena zutik egotea izaten da. Batzuetan artzapezpiku makila ere eskuan edukitzen du,
bera izan baitzen Hispaniako lehenengoa. XIII mendetik aurrera atributotzat hil zuteneko
ezpata ipini zioten. Erromanikoan, XVII eta XVIII mendeetan ohizko irudia izaten zen hau.

(28) VAZQUEZ DE PARGA, L.; LACARRA, J.M.; URÍA, J.: Las peregrinaciones a Santiago de Com-
postela, Madrid, 1948. GIL DEL RIO, A.: La Ruta jacobea, Madrid, 1882, 103-137 ok. BRAVO LOZANO, M.:
Guía del peregrino medieval, Sahagún, 1991. VORAGINE, SANTIAGO DE LA: La Leyenda dorada, 1,
Madrid, 1982, 396-405 ok.

Hasierako Apostolu irudiari XIV mendetik aurrera Pelegrinoen bereizgarriak gehituaz joan zitzaizkion: makila, maskorra, zorroa, eta kapela. XV mendean zabaldu zen kapelan maskorrak eta gurutzatutako makilatxoak ezartzea. XVI mendean erabat sendotuta zegoen tipo ikonografiko honi, tunika moztu, esklabina jantzi sorbalda gainetan eta berriro ortozik agertzen hasi zen. Gainera, atributo berriak jarri zizkieten: errosarioa, goilarea, «Compostelana» edo noragiria gordetzeko kutxatxo eta kubia edo kalabaza. Mende berrean kapela kokotean zuela eta jarrita ere, atsedean hartzen, agertzen hasi zen.

Beste era bat Santiago Zaldun itxuraz irudikatzea izan zen, bai Apostolu jantziar baita gerlari jantziez ere. Beti zaldi zuri baten gainean, aurreko santu gerlarien tradizioari eutsiz, zaldipean mairua zuelarik askotan. Irudi zaharrena Compostelako katedraleko tinpano batean dagoena da, 1220. ingurukoa. Erromanikoan oso urriak ziren tankera honetako irudiak, baina XV mendearen erditik aurrera ugaltzen hasi ziren, XVlean hedatzeko. Askotan irudi hibridoak suertatzen ziren, nahastu egiten baitzituzten zaldunen, Apostoluen eta pelegrinoen berezitasunak.

XVI mendean ere hasi ziren Santiago eskena desberdinetan agertzen: Pilareko Ama Birjinarekin batera; Clavijoko batailan; Sainduak egindako mirakuluetan eta bere bizitzari buruzko programa osoetan, bai pinturan eta bai eskulturgintzan. Ohizkoenak izaten ziren: predikazioa, heriotza, gorpuren ekartzea Iria Flaviara, Hermogenes aztiarekin jazotakoa, idien pasadizoa eta hilobiratzea (29).

Santiagoren irudiak Gipuzkoan

Lan honen helburua, Gipuzkoan dauden Santiagoren irudi guztien katalogo bat egi-tea baina, ikusi ahal izan ditugunez baliatuz, bere ikonografiak izan duen bilakaeraren berri eman eta egin zireneko garaiari gehixeago hurbiltzea izan da, gure historiaren eta izaeraren esparru bat hobeto ezagutzeko.

Lanari ekiteko Gipuzkoako ermita eta elizei buruzkoak hartu genituen abiapuntu-ztat (30). Hasieran aipatutako irudi guztien bilduma bat egitea pentsatu bagenuen ere, kanpo lanaz hasterakoan zenbait traba aurkitzeaz aparte, errealtatearekin tril egin genuen eta horrela jakin: Santiagoren ardurapean eraikitako ermita asko desagertu egin direla, sainduak ostu egin dituztela, baten bat erre egin zela, berriztatzea eramanda zeudela, inork ez zekiela non zeuden, ermitak eta elizak itxita, etabar.

Hala ere probintzia osoko Santiagoren 34 irudiren eta berari eskainitako 3 erretaulen bilduma azaldu nahi genuke.

(29) Tipo ikonografikoetarako: STEPPE, J.K.: «L'iconographie de Saint Jacques le Majeur», in Santiago de Compostela: 1000 ans de pèlerinage, Gand, 1985. REAU, L.: Iconographie de l'art chrétien, Paris, 1958, 695-702, ok.. MALE, E.: El gótico, Madril, 1986, 314-315 ok. FERRANDO ROIG, J.: Iconografía de los santos. Barcelona, 1950, 48-53 ok. BIBLIOTHECA SANCTORUM entziklopedian Giacomo il Maggiore delakoan, 381-388 ok. SICART JIMENEZ, A.: «La iconografía de Santiago ecuestre en la Edad Media», Compostellanum, 28, 1-2, 1982, 11-32 ok.

(30) LOPE DE ISASTI: Cosas memorables o Historia general de Guipúzcoa. (1625). Bilbo, 1972. MURUGARREN ZAMORA, L.: «Relación de puntos religiosos de Guipúzcoa», BRSBAP, XXVII, 1972; artiku-lu honi egindako zuzenketekin taiututako orri mekanografiatuak. PEÑA SANTIAGO, L.: Guipúzcoa paso a paso, Bilbo, 1969. PEÑA SANTIAGO, L.: Las ermitas de Guipúzcoa, Donostia, 1975. HUIDOBRO SER-NA: Las peregrinaciones jacobean, 3, tomoa, Madril, 1951. ARRAZOLA, M.A.: El Renacimiento en Guipúz-coa, Donostia, 1988. «SANTIAGORAKO BIDEAK GIPUZKOAN» erakusketako katalogoa, Donostia, 1993.

a.— Apostolugoaren partaide

Leku desberdinetan azaltzen da:

— Hilobia: Debako elizan.

— Ataurrea: Debako elizan.

— Gangak: Goroeta (Aretxabaleta), Deba eta Eibarko elizetan.

— Kalistroa: Oñatiko San Migel elizan.

— Erretaulak: Bergarako San Pedro elizako poliptiko flamandarra eta erretaula nagusia, Oñatiko Bidaurreta komentuan, Eibarko San Andres, Oiartzungo San Esteban eta Donostiako San Bizenteren elizetan.

Debako Santa Mariaren elizan bada San Juanena deituriko kapera bat, harrizko hilo-bi bat duena. Hilobi honetan bi zati bereiz daitezke: ohea esaten zaiona, zeinean dituen, Kristoren Bataioaren eskena bat inguratzen, Sasiolatarren ezkutuak, bi fraile dominikar eta bi frantziskotar. Gaietan Apostolugoa, arku angrelatu batek babestua. Santiago pelegri-noen atributoekin ageri zaigu eta beste guztia moduan traukil samar landuta. XV mende-aren bukaerakoa dela esatera ausartuko ginateke: arkuak zorrozatasuna galdu duelako, Kapera pribatuak XV mendean hedatu zirelako, arkuaren inguruko ornamentazioak ere mende horretakoa dirudielako, Sasiolatarrak 1517an frantziskotarren komentuen funda-tzaile izanik kapera pribatuaren eraikuntza aurrekoa izango zelako.



Deba. Santa Maria parrokiako ataurrea XVI mendea. Harria.

Eliza berean, sarrerako ezker aldeko atezangoan beste irudi bat dago, XVI erdialdeko itxurakoa, ataurrearen eraikuntzako bigarren fasekoa dirudiena (31). Harrizkoa, pelegri-noa, maskordun iduneko haundidun tunikarekin jantzita, kapela kokotean erantzita, liburua esku batean, eta makila eta kartela bestean. Kartela honetan, Errenazimenduko letra tipo bateaz, 12 Apostoluen artean banatuta dagoen «Credoa»aren zati bat idatzita dauka, San Agustinen idatzi batean oinarrituta (32).

Oñatiko San Migel elizako kalistroaren kanpokaldean badira kontraormetan «sendos tabernáculos con sus repisas y ymagenes» Juan de Santa Cruz irudigile oñatiarrak egin-dakoak, 1526. urtean sinatutako kontratu baten arabera Oako harriaz landutakoak (33). Santiago San Juanen ondoan kokatuta dago eta irakurtzen diharduen pelegino baten antza du: mantu haundi batek ia tapatu egiten dio paparrean gurutzatuta daraman zorroa, kapela kokotean erantzita, eta makila apurtua agiri zaio. Erropak harrotuta azaldu arren, bizarren egitea, ilea, oraindik gusto gotikodunak dira.



Oñati. San Migel parrokiako kalistroa. XVI mendea. Harria. Egilea Juan de Santa Cruz.

(31) ARRAZOLA, M.A.: op. cit. 1 go tomoa. 134-138 ok.

(32) FERRANDO ROIG, J.: op. cit. 48-53 ok.

Ganga edo bobeda gotikoak ere aproposak suertatu ziren beren giltzarrietan Apostoluak kokatzeko. Hala nola, Debako Santa Maria elizan, Goroetako Santiagorenean eta Eibarko San Andresenean. Hiruretan Santiagoren soinak daude pelegrino gisa jantzita. Lehen Pedro de Mendiola landua 1575-1599 bitartean (34); besteen egileak, berriz, ezezagunak dira eta estiloagatik XVI mendeko 3. laurdeneakoak direla esan genezake.



Goroeta (Aretxabaleta). Santiago elizateko gangetako giltzarria. XVI mendea. Harria

Erretauletan ere XVI mendean maiz irudikatzen dira Apostolugoak. Bergarako San Pedro elizan, besteak beste, birritan aurkituko dugu: San Migelen poliptiko flamandarreko predelan eta erretaula nagusian. Lehenean, Salbatzailea erdian dela, Apostoluak binaka partitzen dira alde banatan, Santiago bere anaia San Juanen ondoan dagoelarik. Zur pintatuan egina, pelegrino ikonografia ezaguna du, tradizio gotikotik oso gertu: ortozik, kublaurentzako kakodun makila, zorroa, eta tunika eta mantuaz jantzita. Brujasko tailerren batean 1520-1530 inguruan egindako taula ederra da oso (35). Beste irudia, erretaula nagusi platereskoko Epistola aldean dago: lezarrita, irribarretsu, belaun gainean liburua zabalik, kubidun makila gurutzeduna eskuan, maskordun kapela eta tolestura haundiko mantu zabalean bildua. Irudi ñarroa, tentea, gogorra, mugimendu gutxikoa. Egilea nor den ez da jakin ahal izan eta XVI mendearen lehen herenekoak dela ematen du (36).

(33) ARRAZOLA, M.A.: op. cit. 1 go tomoa, 100-105 ok.

(34) UGALDE, A.I.: «Iglesia de Santa María de Deba. Iconografía de sus claves de bóveda». Eusko Ikaskuntza, Artes Plásticas y Monumentales, 8, zenb. 1991, 161-195 ok.

(35) ARANBURU, M.J.: GIL MASSA, J.: Artea Bergaran, Erdi eta Moderno Aroak, Bilbo, 1991, 72-74 ok. ARRAZOLA, M.A.: op. cit. 322-323 ok.

(36) ARRAZOLA, M.A.: op. cit. 46-53 ok. ARANBURU, M.J., GIL MASSA, J.: op. cit. 66-68 ok.



Bergara. San Pedro parrokiako erretaula nagusia. XVI mendea. Zur polikromatua.

Oñatiko Bidaurretako komentuko erretaula platereskoaren predelan ere, Apostoluen artean, Santiagoren eseritako irudia daukagu San Pedro eta San Juanekin batera. Erliebean egina, pelegirino gisa azaldua, bisera tankerako kapelaz. Fundatzailearen agindua, 1531 ko testamentuan, Burgosen egitekoa izan zen arren, herriko Juan Martínez de Olazaranek egin zuen. Pintatu eta urreztatu, berriz, Juan Martínez de Olazaranek, Lope Lorenzok eta Martín Ochoa de Irazabalek egin zuten (37).



Oñati Bidaurreta komentuko erretaula XVI mendea. Zur polikromatua. Egilea: Juan de Olazaran.

(37) MONASTERIO DE BIDAURRETA. DATOS HISTORICOS Y ARTISTICOS, Mayo, 1991, 51-53 ok

XVI mendearen bukaeran aldaketa bat nabaritzen hasten da, Santiagok pelegrinoen atributo batzuk galdu egin zituelako, agian protestanteen kritikek eta irainek eraginda, jazkerak edozein Apostolurenak bezalakoak dira eta lehendik geratzen zaion berezitasuna makila besterik ez da. Eibarko San Andresen, Donostiako San Bizenteren eta Oiartzungo San Estebanen erretauletan, bederen, hala da. Eibarkoa Juan de Araozek landu zuen eta 1587an kontuak egin zituen herrikoekin bere lana pagatzeko. Erromanismoaren eredu da, Michelangeloren «terribilita»rena alegia, bekoskoa, jarrera heroikoa, erromatar erako jantzia tolestura haundiekin gauzatu zuen egileak. Donostiakoa, ostera, Ambrosio de Bengoecheak egin zuen, 1583ko kontratuaren arabera. Eibarkoa baino irudi gozoagoa da (38).



Eibar. San Andres parrokiako erretaula nagusia. XVI mendea. Zura. Egilea: Juan de Araoz.

Oiartzungoa, berriz, XVII mendekoa da. 1629an oiartzuarrek kontratua sinatu zuten Ilunberriko Juan de Huicirekin eta honek 1640an oraindik bukatzeke zeukan. 1724an Manuel de Alquiza Leete donostiarrak pintatu zuen arte ez zen urreztatu (39). Gregorio Fernándezek hain gogoko eta hainbeste hedatu zuen barroko naturalista korronte estetikoan sar genezake: tolestura almidoiztatua, ile harroak, mosu polita. Zutabeen taiuketan Juan de Bazcardok egiten zituen antz handia du.

b.— Beste Saindu Batzuren Artean

Santiago agertzen zaigu:

- Gangan: Azatzako Otoratarren kapera (Aretxabaleta)
- Erretauletan: Elgeta, Arriaran (Beasain) eta Larraul.

(38) ARRAZOLA, M.A.: op. cit. 98-106, 188-198 ok.

Otaloratarren kapera Azatzako San Juan Bataiatzailearen elizan dago, Ebangelio aldean, elizako lekuri pribilegiatuenean. Juan de Otalorak, Errege Katolikoaren zerbitzariak, 1540an fundatu zuen San Migelen adokaziopean eta hiru aldarerekin. Garaiko gotikoan eraiki zuen eta izar itxurako gurutzedun gangaz estali. Bere anaia zen Sancho de Otalora Galarza (1498-1570), leinuko pertsonariak garrantzitsuena (Salamanca Zuzenbidea ikasia, Sibilian epaile, Carlos I Enperadorearen Erret Kontseilukoa), Espainian bizi izan eta gero, erretiratzen sorlekura itzuli zen 1562an (40). Hil arteko urteak elizako eta sailduen liburuak irakurtzen pasatu ei zituen eta, itxura denez, bere hilobia prestatzearekin batera, kapera guztiz dotoretu, hornitu eta jantzi egin zuen. Dotoretze honetan gangetako harrizko giltzarrien gainean egurrezko medalloiak jarri zituen, zeinetan bere ezkutuarekin batera bere debozioko sailduak irudikatuta dauden. Hauen artean, Santiago pelegriñoaren bustoa aurkitzen da, domina biribil baten moduan sartuta, eta «a candelieri» motiboez apaindutako orla karratu batek inguratuta. Urreztatu zen moduan mantentzen da.

Elgetako eliza nagusiko Ibaratarren Santiagoren erretaula deritzana kontserbatzen da Epistolaldeko gurutzerian, bere leku originaletik kanpora. Nahiz eta M.A. Arrazolak Santiago Txikiarena dela esan, eskuineko eskuan daraman makilak Haundia dela diosku. Bere esanetan, errataula hau probintzian dagoen italiar kutsu handiena duena da: bai arkitekturagatik, bai mitologi apainduragatik, baita irudien klasikotasunagatik ere. Bere egitekoa 1564an Miguel Llorenterekin kontratatua izan zen (41). Eskuineko oin traketsa landu zuenean autorea ez zen oso fin ibili, baina hala ere oso ondo lortutako irudia da. Makila soildun Apostolua lasaitasun klasiko baten jabe da, antzinako erromatar bat dirudielarik.

Arriarango San Pedro elizako erretaula nagusian, oster, Santiago berriz ere pelegriño moduan agertzen da: soineko motza, kapa luzea, maskordun kapela eta makiladuna.



Arriaran (Beasain). San Pedro parrokia XVII mendea. Egilea: Juan de Mendaraz.

(39) MUGICA, S.: «La iglesia de Oyarzun. Noticias retrospectivas», IV, Euskalerriaren alde, 165-166, VII urtea, 1917, 532-534 ok. LEKUONA, M.: «Del Oyarzun antiguo», 1959, 5, kondaira, Gasteiz, 1978, 228-235 ok.

(40) OTALORA JAURETXEA, Mondragoe, 1984, Garibayren lanetan oinarritutako laburpena.

(41) ARRAZOLA, M.A.: op. cit. 125-131 ok.

Irudi geldo samarra da, adierazkortasun guttikoa, aurrez aurre begira, ordura arte Euskal Herrian indartsu mantendu zen erromanismoaren indarra galtzen hasia. 1627 an Juan de Mendiaraiek eman zuen bukatuta bere elizan (42).

Larraulgo San Esteban elizan berriro Apostolu gisa azaltzen da. Kubidun makila du atributotzat. Juan de Otaegui landutakoa da 1718an. Bere kide den San Inaziorengatik diote herri aire bat agertzen duela, tokietako zur-langileek egindakoak bezala (43). Eritziak eritzi, Juan de Otaegui ez zuen lan txarrik egin.



Larraul San Esteban parrokia. XVIII mendea. Zur polikromatua Egilea Juan de Otaegui

c.— Santiago Pelegrinoaren Irudi Soilak

Bat ezik, beste guztiak ermitetakoak dira:

Etxean: Ubera (Bergara)

Ermitetan: Zarautz, Astigarraga, Basalgo (Bergara), Aizarna, Uzarraga (Antzuola), Ikaztegieta, Ereñozu (Hernani).

(42) CENDOYA ECHANIZ, I.: «Domingo y Juan de Mendiara, el paso del romanismo al naturalismo barroco», *Kultura*, 1, 1990 maiatza, 45-46 or.

(43) PLAZAOLA, J.: *San Inazoren ikonografia* Euskadin, 1991, 23. or.

Ubera auzoko Martokua baserriko bide kontrako orman sartuta, Elgetatik Bergarara bitartean, ia guztiz hondatuta dagoen harrizko Santiagoren imajina ongi antzeman daiteke, kapelagatik eta makilagatik ere bai. Zerbait haundiagoren baten zatia dela esan daiteke, agian, bidagurutze batena. Saindua maskordun nitxo batean kokatua egoteak Erenazimenduan datatzeko balioko liguke, XVI mendearen erdialdeko platereskoan asko erabili baitziren.



Ubera (Bergara). Martokua baserria. XVI mendea. Harria.

Kilometro guttitara, Basalgon, zur polikromatuzko beste irudi bat daukagu, zaharra-goaren itxura duena, Santuari eskainitako ermita gotiko batean (XV bukaera edo XVI hasierakoa). Bedeinkatzen ez balego, pelegirino arruntzat hartuko genuke: kubidun makila, zorroa gerrikotik zintzilik, kapa eta buruan kapela txiki bat. Bergarako artea ikertu duten Aranburu eta Gil Massa diote (44), arrazoizko zalantzak kontuan harturik, XV mendearen koka daitekeela. Gure ustez, zertxobait atzera daiteke, berezitasuna ematen dion kapela txikia gogoan badugu. Kapela hauek 1500. urte inguruan modan jarri baitziren (45) eta 1450-1500 bitartean, Alemanian I. van Meckenem-ek grabatutako Hamabi Apostoluen estanen artean ere, Santiago Basalgokoaren antzeko kapela bat jantzia agiri da (46).

(44) ARAMBURU, M.J., GIL MASSA, J.: op. cit. 28. or.

(45) BERNIS MADRAZO, C.: *Indumentaria medieval española*, Madril, 1955, 47-48. ok.

(46) BARTSCH, IX, 81. or., 80 (228) zenb.



Basalgo (Bergara). Santiago ermita. XVI mende hasierakoa. Zur polikromatua.

Bergaratik Urretxurako bide zaharrean, 1503. urtean dokumentatua (47) dagoen Uzarragako San Martzialen (Lehen Santa Katalina) ermita gotikoan (XV bukaerakoa edo XVI hasierakoa) beste imajina bat daukagu, Errenazimenduko egurrezko egitura arkitektoniko batean kokatuta. Basalgokoa moduan, bedeinakaten diharduen pelegriinoa da, oso hieratikoa, eta ileen egitean bestea baino eskasagoa. Tunikaren gainean daraman «loba» izeneko jantzia Gaztelan XV mendearen bukaeran modan jarri zen eta XVI mendean mediku, doktore, lizentziatu eta elizgizonena bihurtu zen (48). Beraz, Uzarragako hau ere azken mende honetakoa izan daiteke.

Zarautzen, 1505. urtean dokumentatutako Urtetako San Sebastianen ermitan, Santiagoren zur polikromatzuko imajina eder bat gordetzen dute. Irudiari dagokionez, ibiltari agertzen den bakarra da. Pelegrino erara jantzia: kubia esku batean, makila bestean, zorroa paparrean gurutzatuta, ortozik, eta kapa eta kapela bizkarrean atzeratuta. XV mendekoa dela diote (49), eta guk gaineratuko genuke oso berandukoa edo XVIaren hasierakoa behar duela izan, garai horretako kutsua baitute bere ileak, bizarrak eta begiek.

(47) MURUGARREN, J.: op. cit.

(48) BERNIS MADRAZO, C.: *Indumentaria española en tiempos de Carlos V.* Madril, 1962, 94-95 ok.

(49) SANTIAGORAKO BIDEAK GIPUZKOAN erakusketako katalogoa, 26. or.



Ureta (Zarautz). San Sebastian ermita. XVI mende hasierakoa. Zur polikromatua

Egileari eta jatorriari buruz ezer ez dakigu, baina bere oinarrian egon daitekeen F.V.B. maisuaren estampa batean Santiago tankera berean agertzen da: oinez, kapa atzeratuta, bizarokotz luzeak eta hanka arteko tolesturek ere egite bera dutelarik (50).



Alemania F.V.B. maisuaren grabatua (1450-1499)

(50) BARTSCH, VII, 182. or.

Aizarnako Santa Engraziren ermitan Santiago pelegirino gisa azaltzen da: esku batean maklla izango zuen eta bestean liburua dauka. Maskorrak kapela haundian eta kaparen idunekoaren alde banatan dauzka. Irudi hau ere XVI mendearen hasierakoa dela esatera ausartuko ginateke: soinean daroan kapa frantzesar ordukoa da (51), baita bizarra okotzean erdibituta izatea ere. Bestalde, badu detaile bat, bere jatorriarekin zerikusia izan deza-keena, Flandesko Malinas hiriko irudi askok dutena, tunikaren mauken inguruan kapa jasota edukitzea alegia.



Aizarna. Santa Engrazi ermita. XVI mendea. Lur polikromatua

Astigarragako Santiagomendiko ermitan, berriz, alabastrozko irudi bat gurtu izan da, XII-XIII mendekotzat hartu izan dena (52) eta horrela balitz, Europar tankera horretakoa egon daitekeen zaharrenetarikoa gerta daitekeena. Baina zer dela eta alabastrozko irudi hau Astigarragan? Ez da bakarrik inguru horretan, zeren gehiago dauden Hondarribian (Santa Katalinaren erretaula), Oiartzunen (San Esteban parrokiako Pietatea) eta Errenteriako Salbatore ermitan (San Klemente, Aita Guztiz Ahaltzua Semearekin, eta beste zati batzuk) baita Bizkaian eta Araban ere. Aurrekoen artean katalogatutako obren jatorria (Bizkaia, Araba eta Hondarribiakoak) Ingalaterran jartzen da, hango eta Euskal Herriaren arteko merkatal harremanen fruitu. Hasieran ingelesez alabastrozko obren produkzioa luxuzko hilobietan izan zen ezaguna, baina XIV mendearen erditik aurrera, produkzioa industrializatu egin zenean, kalitate maila apalagotu egin zen. Hilobien lekua, geroago, erretaula txikiak hartu zuten eta gutiago irudi soilek. Kalitatearen eskasia XV mendetik aurrera izugarri areagotu zen eta beronen eza polikromiaz eta urreztaduraz estali eta konpontzen

(51) BERNIS MADRAZO, C.: *Indumentaria..* op. cit. 80-81 or.

(52) SANTIAGORAKO BIDEAK GIPUZKOAN op. cit. 12 or. ORELLA, J.L., KORTADI, E.: op. cit. 227. or., hauek segurutzat eman arren, zalantza izpitxo bat azaltzen dute. LEKUONA, M.: «Santiago-bideak.» op. cit. 303 or.

zuten (53). Alabastroak duen bizitasunak, dotoreziak, gaineko polikromiak eta aukerako prezioei esker obra hauek erosteko modukoak bihurtzen zituen eta, gaur egun, kontinente guztian zehar barreiatuta aurki ditzakegu. Holako obraren bat ote da Astigarragako Santiago hau?

Edozein modutan ere, pelegrinoen atributo guztiak daramatza, eta hau ez da normala XIII mendeko irudietan. Trauskiltasunaren azpian, XVI mendearen hasieran behinik behin landutako obra bat antzeman daiteke: jantziak, tolesturetan egindako ahaleginak, kapa trabatzeko lokarria edo aletxa, ikonografia bera. Artisau baten lana dirudi, kutsu zaharkitua ematen diona, hala nola, begi haundietan, matraila beteetan, ilearen adats zuzenetan, bizar puntetako kiribilotxoetan. Orohar, bitxia izatez aparte, ez da balio artistiko handikoa.

Eta azkenik, XX mendeko 2 irudi, hauek ere sailean egindakoak diruditenak, Ikaztegiako Pilarikaren ermitakoa eta María Dolores Ubarretxenak fundatutako Ereñozuko Santiagorenakoa. Haundiagoa eta biziagoa lehena, txikiagoa eta motelagoa bestea. Biak, bestalde, antzeko ezaugarriekin: esklabinadun tunikez jantzita, liburuaz, maskorrak eta kubidun makiladunak, gozotasuna nabari zaienak, lasaitasuna, zerurako begiradaz, bakio-soak.



Ikaztegeta. Pilarika ermita. XX mendea.

(53) HERNANDEZ PERERA, J.: «Alabastros ingleses en España», Goya, 22. zenb 1958, 216-222 ok. ALCOLEA, S : «Relieves ingleses en España. Ensayo de catalogación», A.E.A., 1971, LXVII, 137-153 ok. LAHOZ GUTIERREZ, M.L «Un alabastro Inglés en Lermenda», Kultura, 1. zenb., 1990, 31-37 ok.

d.— Santiago Zaldun

Irudi soila: Deba.

Erliebeak: Zubieta, Uzarraga (Antzuola) eta Aia.

Pintatua: Goimendi (Elgeta).

Miniatura: Tolosa (Gipuzkoako Artxibategi Orokorra).

Egun Zumaiaiko Zuloaga Museoan irudiren bat dagoen arren (Gaztelatik ekarria ornen), Debako parrokian gordetzen da Gipuzkoako Santiago zaldunaren irudi zaharrena, mukulu biribileko bakarra. 1778. urtean bere ermita profanatuta eta hondatuta zegoelako, Santa Katalinarenera eraman zuten eta handik oraintsu parrokiara (54). Zurezkoa eta polikromia hondarrak ditu. Zaldia falta du (bi piezatan egindakoa izango zen segurutik) eta eskuak apurtuta dauzka. Besoen konposizioagatik, eskumako eskuan ezpata edukiko zuen. Ez du atributo berezirik. XV mendean oso modan egon zen boneta darama buruan, eta begiradak eta jazkerak ere mende horretakoak dirudite. Egileak oso zaldun hieratikoa lortu zuen, grazia apurra mantuaren tolesei eman zielarik.



Deba. Santiago ermita (desagertua). XV mende bukaerakoa-XVI hasierakoa. Zur polikromatua.

Zubietako Santiagoren elizako erretaula nagusian, pintatutako beste saindu batzuren artean, erliebean tailatutako zaldunaren eskena bat dugu, zur polikromatuan egina eta XVII mendearen hasierakoa, 1649. urtean Catalina de Urrizmendik urreztatzea agindu zuena (55), baina itxura guztien arabera berriro gainetik pintatua. Saindua tenteegia da;

(54) ALDABALDETREKU, P.: «Camino de Santiago por la costa», Deba-uda, 19, zenb., 1991, 34. or.

(55) PEÑA SANTIAGO, L.: Las ermitas de Guipúzcoa. Donostia, 1975, 290. orrialdean Murugarreni jarraituz egindakoa.

hala ere plastikotasuna erdietsi du artistak irudiak paneletik atera dituenean. Bere jantziak, proportziogabeak dira, larregi bortxatuak koadroa betetzeko. Mazkordun zorroa paparrean gurutzatuta eta buruan sasoiko modako kapela bat darama. Horretarako lagungarri erabili dituelarik urrutiko mendien zirriborroa eta lainoak. Irabazle gisa azaltzen da, arrapaladan mairuen gainetik, hauek erabiltzen zuten zimitarrak harmatuta.

Uzarragako San Martzialen ermitan, Santiago pelegriñoaren irudiaz gain, zaldunaren beste bat kontserbatzen dute, erliebean landua, marko barroko batez inguratuta. Egileak, ezpata ezik, eskena soslaian azaldu du, gogortasunaz, traukil eta trakets landuta. Jazkeragatik XVIII mendekoa dela baieztatu dezakegu, batez ere hegala haundiko maskordun kapela eta esklabinarengatik. 1703. urtean inprimatutako Santuaren Meza liburu bateko barruko azalean (bere festa egunean Uzarragan meza ospatzen zuten) grabatu bat dago, zeinean artista edo artisauak inspirazioa har dezakeen bere lana burutzeko (56). Kalitate desberdintasuna salbu, bien arteko parekotasunak nabariak dira: ezkutua, kapa airean, lurrean galdutako ezpata, zaldiaren aurrean zutitzen ari den etsaia.



Uzarraga (Antzuola). San Martzial ermita. XVIII mendea. Zur polikromatua
Amberes. 1703ko grabatua.

Aian dute bere izeneko azken gotikoko ermitan, gure ustez, Gipuzkoan dagoen zaldunaren irudirik onena. Zur polikromatuan egindakoa, altuerliebean, zaldia aurreratu egiten delarik ikuslearengana. Oso dinamikoa, plastikotasun haundikoa, xehetasun eta zehaztasun haundiaz. Hondoko paisaiaren aurrean, Santiago belaunak jasota dauzkan zaldiaren gainean dago, dotore, tunikaz jantzita, esku batean bandera zuri haundia, eta bestean gurutze txiki bat, zalantza barik, ezpataren ordeaz jarria geroago.

(56) INSTITUTO MUNICIPAL DE ESTUDIOS ICONOGRAFICOS EPHIALTE, GASTEIZ, R.: 00240.



Aia. Santiago ermita. XVIII mendea. Zur polikromatua.

Elgetan, lekuz aldatuta zaharra jausi zenean, Goimendi auzoan, Azurtzarrena ormen zen Santiagoren ermita dago, Plazentzia-Bergaratik Bizkairako antzinako komunika-bideen inguruan kokatua. Galdutako imajinaren ordeez, Espainiako azken Gerratearen os-tean, Simon Arrieta pintoreak (Bergara, 1915-1969) erretableatxo neoklasiko batean da-goen margolana egin zuen.



Elgeta. Santiago ermita. XX mendea. Pintura. Egilea: Simon Arrieta.

Aukeratu zuen tipo ikonografikoa irabazlearena izan zen, belaunak altxatuta dauzkan zaldiaren gainean, Santiago bandera zuri haundiaz eta ezpataz harmatuta azaltzen da. Koadroa kolorezko orbain haundiez taituta dago, detaileak ia zirriborrotuta, bai mairuak, bai maskordun esklabinadun jantzia, baita zaldiaren grinak ere.

Tolosan gordetzen den 1558.go Uztailaren 16ko Valladolideko Erret Kantzelaritzaren Erret Gutun betetazle batean, Gipuzkoako probintziak Donostiako Kontzejuaren aurka duen auzian, Donostiako Santa Katalina zubiko garraio eta bidasariak direla eta (57), Santiago zaldunaren miniatura bat pintatu zen pergamuan DON FELIPEren Daren barruan. Santiago zaldi zuriaren gainean, tunika urdinaz, mantu gorriaz, pelegrinoen maskordun kapela eta ezpataz armatua. Zaldiaren hanka azpian bi etsairen buruak ikus daitezke, paisaia simple baten aurrean. Itxuragatik tailerreko lana dirudi, Felipe IIa erregeren garaian dokumentu ofizialetan ohizkoa zitekeena (58).

e.— Erretaulak

Hiru besterik ez daude probintzia guztian:

bata, Seguran, bestea, Goroetan (Aretxabaleta) eta hirugarrena, Astigarragan.

Segurakoa gaur egun presbiterio ondoko gelatxo batean gordetzen da, bere kapera-tik atera zutenetik Aste Sainduko Pausuak gordetzeko. Ez da guztiz ezezaguna, bai kaperak (59) eta bai erretaulak ere (60) jaso dutelako ikerlarien arreta beren izatea ez bada ere aditzera emateko.

Ez dago inongo daturik ez egileari buruz, ezta kaperaren eraikuntzari buruz, ezta erretaula bera edo kapera egitea agindu zuenari buruz. Orain arte ontzat emandako hipotesia izan da kapera eta erretaula Izpiritu Sainduaren Ospitale Ordenarekin erlazionatuta zeudela, Segurako jurisdikzioan (Zegaman) izen bereko Priorato bat zegoelako, Gorosabel historialari giputzaren esanetan «desde tiempo inmemorial». Baina Iruñeko Gotzaitegi-ko Artxiboan gordetzen den 1548ko auzi batean (61), 1503ko Aita Santuaren Bula originala gordetzen da, zeinean baimena ematen den Sancti Espiritus deritzan Prioratoa eraikitzeke. Mende bereko bigarren erdialdean ez dirudi oso normala izango zenik, laguntzeko sortutako Ordena honek dirutza bat gastatzea kapera eta erretaula hau egitean, berak bazuenean non gastatu.

Gure ustez, kapera eta erretaula hau egitearen arrazoia edo jatorria beste gertaera batean aurkitu beharko genuke, horretarako irudikatutako ikonografiak laguntza haundia emango digularik, aurrerago ikusiko dugun moduan. 1565. urteko maiatzaren 9an Isabel de Valois, Espainiako Felipe IIaren hirugarren emaztea, Baionara zihoala Segurara heldu zen Mendekoste Bazkoaren bezperan, eta eguna hain haundia zenez, astelehenera arte

(57) GIPUZKOAKO ARTXIBATEGI OROKORRA, 1990ko Urriak 18- Azaroak 30, erakusketako katalogoa, Tolosa, 1990, 16. or., 27. or.

(58) ICONOGRAFIA DE SANTIAGO Y DE LOS SANTOS BURGALÉSES VINCULADOS A LA PEREGRINACIÓN erakusketaren katalogoan ikus daitekeen moduan, erakutsitako lau obren artean, hiruk Don Felipekin dute zerikusia, eta Donostiako honekin izugarritzko antza dute. 104-111 ok.

(59) ORELLA, J.L., KORTADI, E.: op. cit. 260-261 ok. hauen ustez kapera honetan egon behar ornen zen Santuaren eta Mendekosten erretaularen bat. ARRAZOLA, M.A.: op. cit. I tomoa, 199. or. Autore berak LLAGUNO Y AMIROLA ren lana aipatzen du.

(60) PEÑA SANTIAGO, L.: Guipúzcoa., op. cit. 204. or. ARRAZOLA, M.A.: op. cit. 199 or. ko 322. oharrean erretaularen aipamena egiten du. LEKUONA, M.: «El arte en Guipúzcoa», Idazlan guztiak, 24, zenb. 96. or., honetan adierazten da Mendekoste erliebeak transizioko plateresko estilokoak direla.

(61) SALES TIRAPU, J.L., URSUA IRIGOYEN, I.: Catálogo del Archivo Diocesano de Pamplona, 1, Sección procesos, 1559-1589, dok. zenb. 1448, Segura-Cegama-1548. Scr. Zunzarren, c/ 78, zenb. 8.

(hilak 11) bertan gelditzea erabaki zuen. Baionatik itzultzean berriz ere Segurara uztailaren 6an, opariak hartu ondoren, hurrengo egunean Madrilerantz abiatu zen (62).

XVI mendean kaperak elizetan bi xederekin egiten ziren: edo hilobitarako edo debozio partikularretarako. Lehenak bezain garrantzitsuak ziren gertaera mirakulutsuren bat ospatzeko edo erlikiaren bat gordetzeko jasotakoak. Hauen eraikuntza elizgizon, aristokrata, dirudun edo Erret familiakoek ordaintzen zuten. Eta berauek antolatu eta dotoretzeko erretaulak eta errejak jartzen zituzten (63).

Gure ustez, Seguran, kristautentzat horren berezia zen Mendekoste egunean erreginaren egotearen gogoangarritasuna ospatzeko, kapera hau jaso zuten eta apainduko zuen erretaulan, Trentoko Kontzilioak aholkatutakoa beteaz batera, eguna bera gogoratuz, Espainiako monarkiarentzat gustoko ziren gaiak azaldu zituzten, Frantziako patroia ere ahaztu barik, Isabel de Valois frantzesia zen eta.



Segura. Santiagoren erretaula. Panel nagusia. XVI mendea. Zur polikromatua.

Kapera eta Segurako eliza estilo eta tankera berekoak dira (gangak, giltzarriak, harlanduak) eta garai berean egindakoak dirudite. 1564an elizaren berriztatzeko eta haunditzeko obrak hasi ziren eta 1580an Santiagoren kapera dotoretzen ziharduten (64). Data biak bat datoz kaperaren eta erretaularen estiloarekin, eta bildur barik ordukoak direla baieztatu genezake.

(62) GOROSABEL, P. *Cosas Memorables de Guipúzcoa* (1862), Bilbo, 1972, 505. or.

(63) MARTINEZ-BURGOS, P. : *Idolos e imágenes*, Valladolid, 1990, 193-199 or.


(64) ARRAZOLA, M.A.: op. cit. 199 or., dotoretzeari buruz, LLAGUNO Y AMIROLARI jarraituz

Estiloagatik, erretaula erromanismoaren aurrekoa da, baina platereskotik urruntzen dagoena, klasikoagoa, «Erromako» modari jarraituz egina. Zur polikromatuan landutako erretaula txikia da: predela, gorputz bakarra bi zutaberekin alde banatan, arkitrabea, eta atikoan frontoi makurra. Atikoaren alboetako garrontzi biak ezik, guztia erliebean landuta dago.

Hala ere arlo arkitektonikoa ondo markatuta dauka, eta aurreratuta dauzkan bi zutabe ildaskatuek adierazten dute egileak dinamismoa lortu gura izan zuela, manierismoaren hildotik laua izateari gaineratuz. Arkitekturaren apaindura gisa, moldura klasikoak erabili ziren, aingerutxoen friso bat arkitrabea, eta zutabe korintioetan lehen herena kartela uhel itxurakoez bete zen. Kartela hauek, zuzen zuzenean, Hieronymus Cock holandarrak (1507-1570) editatutako grabatu batetik kopiatu zituen egileak (65).



Segura. Santiagoren erretaula. Zutabeen xehetasuna



Holanda. Hieronymus Cock editorearen grabatua (1507-1570).

(65) GONZALEZ DE ZARATE, J Real Colección de Estampas de San Lorenzo del Escorial, Gasteiz, 1993, II, 197, or., 24.12(653)

Ikongrafiari dagokionez, nahiz eta txikia izan, oso aberatsa da.

Predelan bertan 16 dira irudikatutako imajinak, denak gorputz osokoak, ondo modulaturakoak, anatomia eta tolestura landuak, orekatuak, eta plastikotasun haundikoak. Modu simetrikoan antolatuta dago, alboetatik sagrarioantantz (gaur egun ez dauka): 2 Ebangelista, «Arma Christi» bat, Kristoren Pasioko eskena bat, «Arma Christi» bat, Santu bat eta «Arma Christi» bat. Guztira: lau Ebangelistak euren sinbolekin, sei «Arma Christi» edo aingeru Kristoren Pasioko sinbolekin (mailua, arantza koroa, eskilara, zutabea, lantza eta ozpinaren makila), Santiago pelegirino gisa (Espainiako patroia) eta beste Saindu apezpiku bat, San Martin Tourseko izan daitekeena (Frantziako patroia), apezpiku jantzien azpian habitua daramalako, zeren Saindu hau karguduna izan aurretik, monjea izan baitzen (66). Denen azpian inskripzio bat: «SOLI DEO HONOR».



Segura. Santiagoren erretaula. Predelaren xehetasuna.

Inskripzioa da, hain zuzen, erretaularen izpiritua argitzen duena. Trentoko Kontzilioaren inguruan (1545/1563) eliza katolikoan berria ez zen eztabaida areagotu zen, imajinen balioa zailantzen jartzen zuena alegia. Protestanteeek zioten sailnduei zuzendutako kultuak Jaungoikoari eskainitakoak besteko garrantzia hartu zuela eta askotan ordezkatu ere egin zuela. Eliza katolikoak hartu zuen jarrera, ordea, sailnduen debozioak defenditzearena izan zen. Sailnduek ordura arte uzta onak lortzen edo osasuntsu izaten laguntzen zuten, baina pentsamendu erlijiosoaren aldetaren ostean, gizakien salbaziorako bitartekari izango ziren, beti Jaungoikoaren gorazarreerako (67).

(66) GUERANGER, P.: El año litúrgico, Burgos, 1956, I tomoa, 807-818 ok. LODI, E.: Los santos del calendario romano, Madril, 1992, 466-467 ok.

(67) MARTINEZ-BURGOS, P.: op. cit. 151-154 ok.

Horregatik, Segurako predelan, Jaungoikoaren hitza jaso zuten Ebangelistekin batera, Santiago eta San Martin ditugu (errege-erreginaren erresumetako patroiak) eta Kristoren Pasioko 8 irudi, hots, sei «Arma Christi», Ecce Homoa eta Kristo zutabeari lotua.

«Arma Christi»ak Ertaraoan hasi ziren azaltzen Arte Ederretan eta Kristo sufritzen zegoeneko irudiei lotzen zitzaizkien. Barroko aurrean ohizkoa izan zen, «Arma Christi»ez gain, Pasioko pasarte bi hauetan indarra jartzea, zeren, debozioko irudiak izatetik aparte, Pasiorearen izpiritua ongien adierazten zutenak ziren (68).

Panel nagusia, maskor baten azpian, Santiago zaldun mauruhiltzaileari dedikatuta dago, Clavijoko batailan gertaturikoa kondatuz. Eskena betearen ordenamenduak Ertaroko kutsua du eta Paolo Ucello San Romano bataila gaiaz pintautakoa gogorarazten digu. Perspektiba kontzeptualari esker antolatuta dago. Goitik-behera: paisaia malkartsua, lantzak eta banderak, burrukalariak eta hildako mairuak krudelki antzemanda. Ezker-eskuinekoan, berriz, Santiago da erdibitzailea, zaldun bakarra, Kristauren buruzagi izanik txarren irabazlea da. Zaldi gainean, banderaz eta ezpataz harmaturik zapaltzaile nagusia da, neurrian ere nabarmendua.

Santiagoriko debozioak gorakada izugarria izan zuen Espainian, horretarako XVI mendeko gerlak oso aproposak izan zirelarik. Jakina da Hispaniako gudalosteek Errekinkistatik gehiago «Santiago y a ellos» edo «Santiago» oihu eginez egin zituztela konkistak eta lur hartzeak. Espainiarren gerla ulua bihurtu zeri etsaia edonor zelarik, zein turko, protestante edo indio. Soldaduen eta zaldunen saindurik maitatuenetarikoa izan zen (69). Espainian eta Euskal Herrian hain gogor bizi izan zen Kontrarreformako giroan gai aproposa izan zatekeen hau: Santiago infidelak akabatzen oso eredu garri bilaka zitekeen protestanteen aurkako burruketan.

Frontoiko Mendekosteren eskenak osatu egiten du Eliza ekinkidearen mezua, sasoi hartan sendotutako pentsamoldearekin bat eginik. Mendekoste egunean ospatzen zen Izpiritu Sainduaren etorrera Lurrera, Jaungoikoak Ama Birjinari eta Apostolugoari bere hitza zabaltzeko agindu zienekoa. Mementu hori Elizaren sorreratzat hartu izan da, eta benetan inportantea zatekeen adieraztea Elizaren izatea protestanteek loka jarri zuteneko garai zail haietan.

Eskena Idatzitakoari moldatzen zaio: barrukaldean jazotzen da, osteko arkitektura klasikoei esker lortuz; oso dinamikoa, Ama Birjina eta Apostoluak urduri eta zeinuka agertuz. Denak moldura buruan dagoen uso itxurako Izpiritu Sainduari begira daude, bere grazia errainu gisa hartzen duten bitartean. Egurrezko aulkietan jarrita, Ama Birjinaren aurrean belaunbiko dagoena ezik, Oñatiko Unibertsitateko erretratuak eskena bera gogorarazten digularik. Eskena erregistro bertikaletan antolatuta dago, marko makurrari guztiz egokituta.

Egilea ezezaguna da guretzat, baina lortutako emaitzaren aurrean, nahiz eta polikromia berantiar eta eskasak bere lana estali, artista trebe eta kalifikatua zela esan genezake.

Goroetako erretratu Santiagoren bizitzari eskainitako bakarra dugu Gipuzkoako probintzian, auzo horretako elizaren titularraren omenez jasotakoa. Goroeta Aretxabaletako auzo bat da, antzinako Arabarako bide baten ondoan kokatuta eta Oñatiko kontearen jurisdikzio lurrak izandakoetan dagoena.

(68) MARTINEZ MEDINA, F.J.: Cultura religiosa en la Granada renacentista y barroca, Granada, 1989, 82-84, 134-139 ok.

(69) SORIA Y PUIG, A.: op. cit. 22. or.



Goroeta (Aretxabaleta). Santiago elizateko erretaula nagusia. XVI mendea. Zur polikromatua.
Egilea: Miguel Pérez de Sardaneta.

Erretaula honen aipamen dokumentalei esker jakin genitzake egilearen izena eta landu zeneko data. Elizako «Libro de Cuentas de Fábrica» delakoan hasierako orrialdeztatu gabeko folio apurtuetan (1590eko bisitaldikoak seguruenik) irakur daiteke, Calahorra-La Calzadako Gotzaiaren Bisitatzailari egindako deskarguaren sailean.

«Item que gasto trece reales en el pleyto que trato con los oficiales que habian hecho el retablo en la dicha iglesia y de cobrar los alcances que debian los mayordomos a la dicha iglesia».

Aurrerago, 1595eko Azaroaren 24ko bisitaldian,

«Item 223 reales que han dado a Miguel de Sardaneta de lo que a de aver del retablo», «Item 31 reales de un conocimiento que dieron a la muger de Lope de Yramain por lo que ha de haver del retablo».

1601ean, berriz, egilea nor izan zen zehazten da, diotenean

«Item dio por descargo ciento y setenta y seis reales que pago a Miguel Pérez de Sardaneta para en carta y pago que ha de haber del retablo que hizo para la dicha iglesia no mostró carta de pago y el cura certifico haberle pagado, mando hobrarse carta de pago», «Item dio por descargo otro ducado que pago al dicho Miguel Pérez de Sardaneta».

Eta azkenik, bisitatzailak agindutako «Comission» batean diote

«verifiquen las cuentas con quantas con Miguel Perez desardaneta enraçon de lo que a cobrado y se le a pagado para el retablo que hizo y le an por todo rigor y censuras a que aya de dar y de carta de pago de todo lo que avia recorrido y asi bien cumpla a

todas y qualesquiera personas que debieren diezmos o en otra qualquiera manera a la dicha fabricay ansi lo probeyo, mando y firmo» (70).

Deskargu hauen arabera, badakigu egilea Miguel Pérez de Sardaneta izan zela, 1590erako erretula bere lekuan jarrita zegoela (ez oraingoan, zeren presbitergoaren norabidea aldatuta baitu), eta 1604rako ordaintzea bukatuta zutela, harrez geroko bisitaldietan ez delako behin ere agertzen.

Erretaula hau ere zurezkoa da, urte gutxi de la trauaskilli polikromatua eta estiloz erromanista. Osatzen dute: predelak, 2 gorputzek, 3 kalek, eta frontoidun atikoak. Arkitektura oso sinplea du: marra zuzena da nagusi, titularraren arkosolioan edo atikoko kiribilduretan ezik. Eskenak markatzeko fuste leuneko zutabeak ditu, ordena gainjarriekin (jonikoa eta konposatua). Apaindura gisa, arkosolioaren pilastra ildaskatuak eta arkuarteko aingurutxoak, kaxetan kateadura manieristak, eta kiribilduretan, garaiko modari jarraiki, erdi etzandako mutilak (askogatik irudirik eskasena).

Arkitekturaren edo mihiztaduraren egilea baliteke izatea arestiko Lope de Yramain. Beran ere agertzen delako erretaularekin zerikusia baleuka moduan, diru kopuru haundiak kobratzen eta orri apurtuetan bere izena lotzen delako «entallador» ogibidearekin (71). Honi 1590ean 69 dukat ordaindu zizkioten, 1593an bere emazteari 106 erreal elizan egingin-dako lanaren truke, eta urte bi beranduago 33 erreal (72).

Eskulturari dagokionez, erdiko kalea mukulu biribileko irudientzat gorde zen eta alboak erliebean landutako eskenentzat.

Bankoan edo predelan, sagrarioaren alde banatan (1590ean egina zegoen, baina egun desagertu egin da), bi atlante gaineko zutabeei eusten eta turbantedun bi gizon erdi etzanda daude, filakteriaz hornituak, Oñatiko Unibertsitateko erretaulakoen antzerakoak. Turbanteak eta filakteriak Itun Zaharrera edo Ebangelistengana eramango gintuzkete, kontatzen den historiari legitimazioa emanez. Santiagoren kasuan San Markos eta San Mateo izan ziren bere berri ugarien eman zizkigutenak eta, beharbada, euren irudiak lirateke.

Erdiko kalean Trentoko Kontzilioaren inguruan sendotutako erlijioasuna azaltzen da, Santuen bitartekaritaz Jaungoikoarengana ailegatzearen ideia, alegia.

Sagrario gaineko arkosolioan sakristian gordetzen den Santiago pelegriñoaren irudia zegoen, maskordun sandaliak eta kapela jantzita, esklabinadun kapa haundia, makila esku batean eta liburua erdi zabalik bestean, hatzamar bat dotoreziaz sartuta daukalako. Oinezean irudikatzeak, gorputza alderatuta eta begirada albora eukitzeak dinamismo eta errealismo haundia ematen diote.

Itxura dinamiko bera du gainean erromatar legionari gisa jantzitako Santiago zaldunak ere, banderatoaz eta ezpataz armatuta. Santiagoren bereizgarritzat, zaldia eta berak apaintzeko daramatzaten maskorrak.

Orduko erretaula guztiak bezala, atikoa eta frontoia betetzen dituzte Kalbarioak, Jeru-Salem bailitzan pintatutako hiri baten aurrean; Aita Guztiz Ahaltsuak eta Izpiritu Sainduak,

(70) Donostiako Elizbarrutiko Histori Artxiboa, Goronaeta, Libro de Cuentas de Fábrica (1590-1686), orrialdeztatu gabeko folioak, 11.a.

(71) BARRIO LOZA, J.A.: La escultura romanista en La Rioja, Madril, 1981, 27. orrialdean eta GARCIA GAINZA, M.C.: Escultura romanista en Navarra, Iruñea, 1969, 34-35 ok. Autore biek esaten dute entalladorek erretaularen arkitektura apaintzen zutela eta sarritan pertsona berak egiten zituela lan biak.

(72) Donostiako Elizbarrutiko Histori Artxiboa, Goronaeta, Libro de Cuentas de Fábrica (1590-1686), orrialdeztatugabeko folioa.



Goroeta. Erretaula nagusiko xehetasuna: titularea.

Kalbarioko iltzatuarekin batera Trinitate bat osatuz. Trinitatearen misterioa, meza guztietan gogoratzen dena, ez zen jai moduan ospatu kristau guztien artean 1334 an Juan XXIIa Aita Santuak horrela erabaki arte, nahiz eta komunitate batzuk lehendik ere ospatu. Trentoko erabakiekin katixima egitea agindu zuen Aita Santuaren agintealdian (1566-1572), Pio Varenean hain zuzen, gauzatu zen egun horretako ofizioa (73) eta ulergarria da indartzeko ahaleginetan erretauletako agerpenak ugaritzea Goroetakoan egin zen legez.

Eskenak narratiboak dira eta santuaren bizitzari eskainitakoak soilik. Ordenamendua arraro samarra da, lehengo gorputzean Santiagoren lepamoztea eta gorpuaren «traslatio»a kokatuta daude eta bigarrenean, oster, bi mirakulu, bata hil aurrekoa (Hermogenes aztiarena) eta bestea hil ostekoa (Clavijoko bataila). Azken hau egiteko ezik, beste guztietan Giacomo de la Voraginek jasotako kondaira dago oinarrian (74).

Honen esanetan, Santiagori Herodes Agripak heriotz zigorra eman zion ezin zituelako jasan bere egiak eta mirakuluak. Hiltzeko aukeratutako era lepoa moztearena izan zen. Baina hiltzera zihoala ere Santiagok mirari gehiago egin zituen, bideko elbarri bat sendatu eta bera lotuta zeraman Josias eskribariak bataioa eskatzea, kristau bihurtzeko asmotan. Azkenean biak hil zituzten. Goroetan imajinetan kondatu zutena, alegia, haxe berau izan zen. Santiago erdian da, begiak estalita, belauniko, eskuak bizkarrean lotuta, heriotzaren zain; aldamenean borroera txarrantxa jasota, eta beste aldean, Josias bere txanda itxaroten. Atzean judutarrak eta Herodes. Aingerutxo bat gortina ostetik jazotakoa ikusten ari da.

(73) GUERANGER, P.: op. cit. IV tomoa, 19-26 ok

(74) VORAGINE, S.: op. cit 396-405 ok.



Goroeta. Erreetaula nagusiko xehetasuna: Lepamoztea.

Aingeruak eta gortinak «Traslatio»aren eskenan errepikatzen dira; honetan, ordea, protagonista guztiak babesten dituzte, Rafaelen lan askotan ikus daitekeen moduan. Hildakoaren gorpua txalupa batean agiri da bere bi jarraitzailek lagunduta, olatu zakerreko itsasoan. Taiutzerakoan fidelotasunaz segitu zuten kondaira. Giacomo de la Voraginek, Juan Belet-i jarraituz, zioenez, hil ondorenean, bi dizipuluk Santiagoren gorpua hartu zuten judutarren ezkutuan eta itsasoratu egin ziren gobernari gabeko untzi batean. Jainkoaren laguntzari esker, aingeruek gidatuta, heldu ziren Galiziako kostaldera eta han lehorreratu Lupa izeneko erregina maltzuraren lurretan.

Bigarren gorputzean azaldutako mirakuluetarik, bata arrunta da oso XVI mendean, Mairuhilzailearena hain zuzen ere. Legionari erromatarren moduan jantzitakoa zaldiaren hanka arteko mairuak akabatzen ari da. Eskenaren konposizioa aurrerakoa da, barrokoaren diagonalak aurikusi zituelako zaldiaren jarrera gauzatzerakoan.

Eta azkenik, Santiago bizi zela jazotako miraria, Hermogenes eta Filete kristau bila-katzearen pasadizoa kontatzen duena. Bazen Judean Hermogenes izeneko azti bat, guztiz haserre zegoena Santiagoren ekintza eta mirariekin. Filete bere ikaslea bialdu zuen Apostoluaren jarraitzaileengana oker zebiltzala eta lehengora itzultzeko esatera. Filete, oster, Santiagoren berbak entzun eta mirakuluak ikusi ondoren, maisuarengana itzuli, eta kristau egiteko asmotan zegoela jakinerazi zion. Hermogenesen ihardespena. Filete mugituezinik uztea izan zen. Zerbitzari bat bidali zuen Santiagorengana laguntza eske, eta honek, bere mukizapia emanez Filetorentzat, hitz batzuk errepikatzeko agindu zion libra zedin. Eta horixe eginik, askatu eta Santiagoren jarraitzaileetarik bat bihurtu zen. Hermogenes ere, deabruekin gora-behera batzuk eduki ostean, kristau bihurtu zen. Irudikatutako mementuan, Filete hiru deabruk (zein baino zein zatarragoa) harrapatuta dute eta eskuan



Goroeta. Erretaula nagusiko xehetasuna: Gorpuaren «translatio»a.



Goroeta. Erretaula nagusiko xehetasuna: Josias eta Hermogenesen mirakulua.

hartu du aurrean dagoen Santiagok eskainitako mukizapia. Santiagoren atzean dagoena Hermogenes edo beste judutarren bat izan daiteke.

Gure ustez, atzenengo eskenak biribilduko luke erretaula honek izan zezakeen mezu anitza. Besteak beste, eliza katolikoaren alde, martiriak bezala, bizia emateko prest behar-ko zutela izan kristauak; santuen bitartez Jainkoari egindako gorazarrea; Trinitatearen dogma indartzea; elizarentzat hitzen eta ekintzen bidez kristau berriak lortu beharra; eliza katolikoaren etsaien kontra egitea; baita Euskal Herrian hain hedatuta ei zegoen sorginkeriei aurre egitea ere.

Jakina da, XVI mendean Espainiako Inkisizioak Euskal Herriaren hegoaldean egin zuen lana sorginak eta aztiak desagertarazteko eta eskarmentu gisa erabilitako metodo gogorrak. Ez dugu ezagutzen Goroeta edo inguruko kasu zehatzik, ikerketarik ez baitago gauzatuta, baina nekazal giroan ez zatekeen oso arraroa izango sorginkieriatzat har zitezkeenak gertatzea eta mirakulu hau hautatzea erretaula honentzat, eredugari izan zedin.

1690ean Arantzazuko frailea zen Fr. Ivan de Luzuriagak argitaratu zuen liburuan zera esaten da zehazki: «Infestan algunas tierras de Cantabria innumerables brujos. Y ordena la Magestad Católica predicar contra ellos nuestros Religiosos»; edo Ama Birjina agertu zitzaiera azti eta sorginei; edo hauen matxinak eta damuak; edo Ama Birjinak sorgindutako umeei esan behar zizkien hitzak:

«Ene seme alaba chipi laztanchoac, oficio citadori euci eguiçu, biurtuzaitez Jaungoico poderosa agana Christau onac beçela, sinisten deçula Jesu Chisto Criadore Redentoreagan, eta aren fede Santa catholican, Eleiza ama santuac sinistes aguingen dituan moduan».

Badakigu, bestalde, 1527 an Calahorrako apezpikuak elizbarrutiko dominiko eta frantziskotarrei agindu ziela kristauen dotrina eta sorginkerien aurkako dogmak zabal zitzatela herri xehearen artean. 1530ean Gipuzkoako Batzar Nagusiek Calahorrako bikarioari gal-

detu zioten ea nola aurre egin zeuden sorgin guztiei; eta 1555ean, berriro aitatu ziren apezpikuarenean Gipuzkoako herri bitako sorginak (75).

Astigarragako Santiagomendiko ermitan gordetzen duten erretaula ederra da. Ermita oso leku estrategikoan dago eta berari buruz esaten da (cobra inequívoca de peregrinos, dela eta uste hori areagotu egiten duela Santiagoren irudi erromanikoak (76). Pelegrinoen pasalekuan kokatua zegoela jakina da, eta berau baieztatuko luke bere mantenurako laguntza ematen zuen Arrozpide baserriaren etimologiak (Arrotz-bide, arrotzen edo kanpotarren bidea). Baina noizkoak ziren lehen pelegrinoak? XI-XII-XIII mende-koak? ala XV-XVI mende-koak? Alabastrozko imajina XVI mende hasierakoa balitz, agian, ermita beraren eraikuntza ere mende horretan datatu beharko genuke. Dena dela, lehen-go aipamen dokumentala 1533koa da (77).

1832. urtean egindako deklarazio batean esaten da «Libro de Cuentas de Fábrica» delakoa eta beste hainbat liburu galdu egin direla, 1794an soldadu frantzesek erre egin zituztelako (78) eta ezinezkoa dela konturik eskatzea.

Hala ere Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboko prozesuetan edo gordetzen den liburu baka-rean datu batzuk jakin daitezke. Hala nola:

1623an, Iruñeko Bisitatzailleak alkate eta herritarrei debekatu egin ziela bazkaria egi-tea ermitan, barruan edo kanposantuan moldatzen baitzuten, eta aldareraino heltzen bai-tziren lapiko hotsa eta sagardo eta ardoaren usaina. Dantzan eta zirriparran aritzen ornen ziren (79).

Urte berean, alkateak, juratu eta herritarrek bikarioaren aurka egin zutela, honek San-tiago egunean parrokiatik ermitara prozesioa egiteko ohizko modua aldatu egin zuelako. Eskatzailleak euren alde azaldu zuten ingurukoek sailduari zioten debozioa eta denek uste zutela ermitan Santiago bera egona zela, maskorrek eta makilek adierazten zuten moduan (80). Lope de Isastik ere gauza bera zioen 1625ean «Santiago de Astigarraga, hermita devota, a donde se hallan veneras, conchas y bordones, criados en las paredes de ella, y lo testifican Echave, Zabaleta, Don Mauro Castelaferrier y el Señor Sandoval obispo de Pamplona. Sírvela un hermitaño que se sustenta de limosnas» (81).

1624an, liburuak eta bitxiak galdu zirela eta, Bisitatzailleak artxiboa egitea agindu zuen eta kontuak bikarioaren aurrean egiteko. Alkateak kontra egin zuen, berak uste zue-lako ez ziola konturik inori zor. Epaia bikarioaren aldekoa izan zen (82).

Sei urte beranduago ermitariak, giltza eta guzti, hanka egin zuen eliztarrei sarrera galaraziz. Dokumentu berean esaten da Jubileo urteetan jendea aldareraino sartzen zela ardo zahagiekin, sagardo upelekin, txilio eta zalapartaka. Gainera ez ei zizkion bikarioari erremusinak ematen (83).

(75) CARO BAROJA, J.: op. cit. 214-215 orrialdeetako 91. oharra. CARO BAROJA, J.: Estudios vascos, V, brujería vasca, Donostia, 1975, 52., 54-55 ok, LUZURIAGAREN testuari «Testo tardío de Fray Juan de Luzuriaga acerca de la intervención de los franciscanos de Aránzazu en la represión de la brujería» kapituluak eskaini dio, 289-301 ok.

(76) ORELLA, J.L.: KORTADI, E.: op. cit. 197. or.

(77) MURUGARREN ZAMORA, L.: op. cit.

(78) Cuentas de la basilica de Santiago (1789-1832) 81. folioa.

(79) SALES TIRAPU, J.L.; URSUA, IRIGOYEN, I.: op. cit. 10. tomoa, 390. or.

(80) SALES TIRAPU, J.L.; URSUA, IRIGOYEN, I.: op. cit. 10. tomoa, 398. or.

(81) LOPE DE ISASTI: Cosas memorables de Guipúzcoa o Historia general de Guipúzcoa. 217. or.

(82) SALES TIRAPU, J.L.; URSUA, IRIGOYEN, I.: op. cit. 8. tomoa, 151. or.

(83) SALES TIRAPU, J.L.; URSUA, IRIGOYEN, I.: op. cit. 5. tomoa, 250. or.

XVIII eta XIX mendeetan ziur dakigu, kontuen arabera, kofradia antolatuta zutela; San Juan egunean "mayordomo"ak hautatzen zituztela, bizilagun guztiei freskagarri bat eskainiaz; eta kontuak bikarioari eta alkateari ematen zizkiotela. Ermitaren mantenurako (inoiz basilika ere deitzen diote) parrokiako atabakean batzen zuten dirua, erremusinak, eta zentsuak ordaintzen zituzten Gaztañaga, Zabaleta, Camio (inoiz Camino), Arrozpide, Bortaluce, Echeberri arriba, Zubimusu, Aleguinea, Ezquerranca eta Aguirre baserriek. Bestalde, ofizioak izaten ziren: Santiago egunean hiru meza, bata kantatua, eta prozesioa Errenteriako kaputxinoekin; Bazko hirugarrenean meza kantatua; eta urtean zehar hiruzpailau meza (84).

Ermita ornatzen duen erretaula ere XVI mende bukaerakoa edo XVII hasierakoa da, erromanista bete-betea, txikia, eta beste biak baino hobeto urreztatua eta pintatua. Egilea nor den ez dakigu, baina parrokiako erretaularen antz haundia du, arkitekturan eta apaindura gisa erabilitako erroleoetan. Siplea da, estua eta luzenka, osatzen dutelarik: predelak, gorputzak eta atikoak; bigarrena izanik askogatik erretaularen alderik onena.



Astigarra. Santiagoren erretaula nagusia. 1600 ingurukoa. Zur polikromatua.

Predelan bakarrik Epistola aldeko erliebea kontserbatzen da: idazten ari den aingeru bat, San Mateorena, hain zuzen ere, bera izan baitzen Santiagoren aipamen gehien egin zituena Liburu Sainduetan.

Panel nagusian, erliebean, Santiago mairu hiltzailearen eskena irudikatu zen. Aingerua zeruan gidari dela, saildua, beste guztiak baino haundiagoa, belauak jasoak dauz-

(84) Cuentas de la basílica de Santiago (1789-1832)

kan zaldiaren gainean, ezpataz armaturik, kristauen gidari azaltzen da, aurrean dituen etsaien kontra, garaitutakoen gainean. Ondo antolatu eta moldatutako eskena da, sailduaren eta zaldiaren arabera. Berau markatzeko alboetako zutabe korintiarrek, lehen herena errolez apinduta dute eta fustea ildaskatuta. Eusten diete orri itxurako mentsula batzuk.



Astigarraga. Santiagoren erretratu. Panel nagusia.

Atikoan, ohizko Kalbarioa, frontoia errematatzen, mukula biribileko irudiez taiutua. Alboetan bi irudi, bata San Rokerena, Ebangelio aldean, eta bestea San Sebastianena, Epistola aldean. Biak peste edo izurriaren aurka inbokatzen zirenak. Ertaroan lege, XVI eta XVII mendeetan ere, orduko kalamidade gogorrena zen izurriteari aurre egiteko, kristauak saildu hauen laguntza eskatzen zuten otoitzen, promesa, errogatiiba eta abarren bidez, ez baitzuten beste modurik asmatzen zerura begiratzea baino. Elizak adore ematen zien honelako ekintzei, teologoek uste zutelako gaixoa Jaungoikoaren gaztigua zela.

(85) MALE, E : El Barroco, Madril, 1985, 328, or.

San Roke, sarritan agertzen den moduan dago, mantuaz jantzita, aingerutxo eta txakurragaz lagunduta, kondatzen zuten biografia mirakulutsuaren arabera. XIV mendean bizi izan zen. Erromara bidean, Apostoluen hilobiak bisitatzea zihoala, izurridun gaixoak sendatzen aritu zen. Handik itzulian bera gaixotu eta, inori enbarazo ez egitearren, basoan ezkutatu eta txakur bati esker bizirik iraun zuen. Montpellierren lapurtzat hartu ondoren, hil egin zen (86).

III mendean bizi izandako San Sebastiani, ordea, arkularien patroiz eta izurritearen aurka ko saindu izateari, Kontrarreforma sasoian beste birtute bat erantsi zioten, fedearen soldadu eta heroi izatearena, alegia (87). Pretorioko soldadu zela, kristauak defenditzeagatik Dioclecianok geziez hiltzera kondenatu zuen, eta horregatik agertzen da biluzik zagitaz josita (Astigarragan galdu egin ditu, baina zuloak bistan dauzka). Orduan ez zenez hil, martiri gogorragora kondenatu zuten, eta hipodromo batean flagelaturata eman zuen azken arnasa (88).

Astigarragako erretaula honetan ere Kontrarreformako kutsua igertzen da, agertzen duen sainduen jokabide gogor eta adoretzuaz. Ez litzateke inola ere aherentzi behar herriaren erlijioasunaren lekuko aukerakoa dela. Euskal Herrian ere hain bortitzak eta gogorrak izan ziren izurriteen aurrean, beste leku askotan bezala, sainduei eskatzen zieten laguntza, orduan ez zegoelako aurre egiteko beste giza modurik. Hasieran «Santiago egon zelako» eraikitako ermita, geroago ingurukoentzako ermita eta eliza bihurtu zen, euren deboziorako prestatu zutelarik.

Gibelsolasa

Gipuzkoako Santiago Apostuluaren irudien ikonografiari hurbilpen txikia egin ondoren, laburbilduz zera esan daiteke:

— Nahiz eta desagertutako Santiagorren ermitak asko izan, eta eurekin batera hornitzen zituzten imajinak, kontserbatutako irudi bakan gehienak nekazal girokoak dira.

— Irudirik zaharrenak 1500. urte ingurukoak dira eta antzinako bideen inguruan jasotako ermitetakoak.

— Zaharrenetan Santiago pelegrino eran azaltzen da.

— XVI mendea da aberatsena ikonografiari, ugaritasunari, kopuru eta kalitateari dagokienez; batez ere Felipe IIaren garaia. XVII eta XVIII mendeetan ere errepresentatua izan zen, eten bat sortuz XX mendera arte.

— Apostolugoaren partaide denean askotariko lekuetan agertzen da. Denboran berriztu ahala pelegrino atributoak galduz doa, makila soilaz geratu arte.

— Beste saindu batzuk legez, banakako debozio partikularren hartzaile izan zen.

— Pelegrinoekin edo bidaiariekin zerikusia dutenak ermitak eta euren irudiak dira.

— Erretauletakoa ikonografia, ordea, pelegrino edo bidaiariekin baino, gehiago erlazionatu beharko litzateke Trento osteko izpiritualen erlijiosoarekin eta Espainiako monarkiaren katolikotasun militantearekin.

(86) GUERANGER, D.: op. cit. V tomoa, 208-210 ok.

(87) MALE, E.: op. cit. 136. or.

(88) GUERANGER, D.: op. cit. I tomoa, 724-730 ok.

Aztertutako Santiagoren irudien kokapena Gipuzkoan

AIA:	SANTIAGO ERMITA
ARETXABALETA:	GOROETAKO SANTIAGO ELIZATEA AOZARATZAKO OTALORATARREN KAPERA
ZUBIETA:	SANTIAGO PARROKIA
BERGARA:	SAN PEDRO PARROKIA BASALGOKO SANTIAGO ERMITA UBERAKO MARTOKUA BASERRIA
OÑATI:	SAN MIGUEL PARROKIA BIDAURRETA KOMENTUA
EIBAR:	SAN ANDRES PARROKIA
OIARTZUN:	SAN ESTEBANEN PARROKIA
DONOSTIA:	SAN BIZENTEREN PARROKIA
DEBA:	SANTA MARIA PARROKIA SANTIAGO ERMITA (desagertua)
LARRAUL:	SAN ESTEBAN PARROKIA
ARRIARAN:	SAN PEDRO PARROKIA
ASTIGARRAGA:	SANTIAGO ERMITA
ZARAUTZ:	URTETAKO SAN SEBASTIAN ERMITA
AIZARNA:	SANTA ENGRAZI ERMITA
ALKIZA:	SANTIAGO ERMITA
ELGETA:	GOIMENDIKO SANTIAGO ERMITA SANTIAGO KAPERA PARROKIAN
HERNANI:	PAGOAGAKO SANTIAGO ERMITA
IKAZTEGIETA:	PILARIKA ERMITA
ANTZUOLA:	UZARRAGAKO SAN MARTZIAL ERMITA
SEGURA:	SANTIAGO KAPERA PARROKIAN
TOLOSA:	GIPUZKOAKO ARTXIBATEGI OROKORRA